

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2122

217/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Izarraitz (ES2120003) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta hura kontserbatzeko neurriak ezartzekoa.

Gobernu Kontseiluaren 1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko eta 2003ko ekainaren 10eko Akordioen bidez, 6 gune deklaratu ziren Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE), eta 52 leku proposatu ziren Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL) izateko. Proposamen hori Europako Batzordeari aurkeztu zitzaion, eta hark Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen (BGL) zerrenda onartu zuen 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Lehenengo erabakia eskualde biogeografiko atlantikoari dagokio, eta bigarrena, berriz, eskualde biogeografiko mediterraneoari; eta bi horien barne dago gure erkidegoa.

Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoan, 4. artikuluan, eta abenduaren 13ko 42/2007 Legean, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoan, 44. eta 45. artikuluetan ezarritakoa betez, autonomia-erkidegoek, jendaurreko izapidea bete ondoren, beren lurraldean BGL guztiak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) deklaratu dituzte, bai eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) guztiak ere. Horrez gain, behar adina kontserbazio-neurri ezarriko dituzte, eremu horietako habitat natural mota eta espezie mota guztien premia ekologikoei erantzuteko. Kontserbazio-neurriek kudeaketa-planak edo kudeaketa-bitartekoak hartuko dituzte, bai eta arauzko, administrazioko edo kontratuko neurriak ere. Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izendatzeko epea 6 urtekoa da, Europako Batzordeak lekuen zerrenda onartzen duenetik konstatzen hasita.

Era berean, Habitat Zuzentarauak eskatutako lehentasunak hiru maila ezberdinetan finkatu dira: lehendabizi, lehentasuna eman zaie beste babespen figura baten pean ez dauden Kontserbazio Bereziko Eremuen izendapenari eta presio eta mehatxu handiak jasaten dituztenei; bigarren mailan, eremu bakoitzaren barruan babesteko dauden objektu barruan, funtsezkoak direnak aukeratu dira; eta hirugarren mailan, zaintze neurri aktiboak lehenetsi dira, garrantzi gehiena emanez premia handiena dutenei edo objektuen eta, oro har, eremuaren kontserbazioan hobekuntza nabarmenagoa dakartenei.

EAEko Natura 2000 Sareko Izarraitz (ES2120003) izeneko espazioan Europar Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak daude, hain zuzen, habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentaruaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak, bai eta basoko hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/147/EE Zuzentaruaren I. eranskinean jasotako hegazti-espezieak ere. Horregatik izendatu zen Natura 2000 leku.

Izarraitz mendigune karetsua da, eta zati handi bat pagadiz estalita dago. Kareharrizko hai- tzebakien oineko baso misto helduen eta harizti azidofiloen eredu onak ere badaude. Pertsonen jarduerengatik –historiaurreko hondar garrantzitsuak daude–, gune irekiak sortu dira, eta nabarmenak dira zenbait larre menditar eta txilardi lehor atlantiko zein mediterraneozko azalera adierazgarri bat. Gune ireki horietan beha daitezke antzandobia, sugezalea edo zapelatz liztorjalea. Botanikaren ikuspuntutik, azpimarratzekoak dira azeri-mahatsa (*Paris quadrifolia*) eta anbulu gaiztoa (*Narcissus pseudonarcissus*). Gune horretako faunaren garrantzia, landazabal atlantikoaren be- reizgarri diren aipatutako hegaztiez gain, funtsean, haitzuloei loturiko kiroptero-komunitateetan

datza. Oinarrizko harkaitzei loturiko landare-komunitate ugari ere badago, eta bertan interes handiko espezie franko egoten dira.

92/43/EEE Zuzentarauak Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, sakon aztertu da gune hori, eta eskala egokian adierazi da Europar Batasunaren intereseko habitaten eta eskualdearen intereseko beste habitat batzuen kokalekua. Horrez gain, Izarraitzeko fauna- eta flora-espezie bereizgarrien kokapena eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Aztertuta espazioaren egungo egoera, haren ezaugarri fisikoak eta ekologikoak eta kontserbazioan eragiten duten giza erabilerak, horren ondoren, lekua kudeatzeko giltzarriak diren elementuak hautatzen dira, eta horiek izango dira, gero, helburuen eta neurrien proposamenen oinarri nagusia. Kudeaketa-xede diren elementu giltzarri esaten zaie, eta horien kontserbazio-egoera deskribatzeaz gain, zenbait helburu eta neurri zehazten dira, batetik, bermatzeko egoera onean kontserbatuko direla, eta, bestetik, lekuaren osotasun ekologikoa kontserbatuko dela, hori baita Habitatak Zuzentarauak ezarritako helburu nagusia.

Elementu giltzarri horietarako zehaztutako neurriak beste habitat natural eta flora- eta fauna-espezie batzuen kontserbazio ona lortzeko erabiliko dira; hain zuzen ere, aurreko elementuekin batera Izarraitz ere Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko arrazoi izan dira, kontserbatu beharrekoak dira eta horrexegatik babes bereziko habitat eta espezieetat jo dira.

Xehetasun-lanek aukera eman dute habitat moten informazio zientifikoa hobetzeko; baina horietan adierazitako azalera-datuetan, zenbaitetan, alde handiak daude Euskal Autonomia Erkidegoak, proposatutako tokien zerrendarekin batera, Europako Batzordera bidalitako eta hari jakinarazitako datuen aldean. Hasierako proposamena egiterakoan lanerako erabili zen eskalak eragin ditu desberdintasun horiek.

Mugaketa eguneratua Europako Batzordeari bidaliko zaio, hark onar dezan. Laneko eskala hobetzeak eragin du eguneratze hori, eta ez dakar muga-aldaketa garrantzitsurik, ez du funtsean aldatzen habitat naturalen azaleraren irudikapena, ez eta Europar Batasunaren intereseko flora- eta fauna-espezieen populazioena ere.

Izarraitz Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko prozeduran, ondo bete da parte-hartzearen prozesua, nahitaezkoa baita uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraikiz (lege horrek ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziarantz heldzeko eskubideak arautzen ditu). Prozesu horretan, gizarte- eta ekonomia-interesen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Izapide-epeak iraun bitartean, zabalik egon dira parte hartzeko jarritako bide guztiak. Horretarako, interesa zuten herritarrei komunikazioak helarazi zaizkie eta, bestalde, propio prestatu genuen web-orri hau: <http://www.euskadi.net/natura2000>

Izarraitzeko kontserbazio-neurriak lantzeko, Europako Batzordearen printzipioei jarraitu zaie, helburua baita eremu horretan bertan ageri eta 92/43/EEE Zuzentaruaren adierazten diren habitaten eta taxonen premia ekologikoei erantzuna ematea. Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa betetz, KBE bakoitzarentzat berariazko kudeaketa-tresna bat sortzea erabaki da. Dekretu honen eranskinean, arau-izaerako kontserbazio-neurriak bildu ditugu, eta kudeaketa-tresnaren gainerako dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrean ingurumenaren alorrean eskumena duen sailaren helbide elektronikoan dago eskuragarri.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 2.f artikularen arabera, ingurumenaren babesa lurralde-antolamenduari eta hirigintzari gailentzea araudi honen oinarrian dagoen printzipioetako bat da.

Eusko Jaurlaritzari dagokio kontserbazio-neurriak ematea eta finkatzea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 16.bis artikuluan eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45.1 artikuluetan ezarritakoa betez, jendaurreko izapidea bete ondoren, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko urriaren 16an izandako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Izarraitz (ES2120003) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremu horren mugaketa dekretu honi eransten zaion kartografian dago jasota Eranskin horretan, deklaratzeko den Kontserbazio Bereziko Eremu horren bi mugaketa adierazten dira: batetik, Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakiari (eskualde biogeografiko atlantikoan Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda onartzekoari) dagokion mugaketa, eta, bestetik, mugaketa eguneratua, Europako Batzordeari bidaltzen zaiona.

3.– Izarraitz Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kontserbazio-neurriak onartzea.

2. artikulua.– Xedea.

1.– Arau honen xedea hau da: Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) bermatzea Europar Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak lehenera ekarriko direla edo, ondo kontserbatuta, horiei eutsiko zaiela. Horiek ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE Zuzentarauan, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoan. Horrez gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziori buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, bai eta eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremuan araubide orokor hau aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentarauan eta 2009/147/EE Zuzentarauan ezarritakoa, eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen ezarritakoa.

3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Dekretu honen helburu den eta Natura 2000 Sarea osatzen duen Izarraitz eremua kontserbatzeko neurriak dokumentu hauetan zehazten dira:

a) Kontserbaziorako helburuen eta neurrien agiria.

b) Kartografia.

b.1) Mugaketa.

b.2) Habitat naturalak.

b.3) Zonakatzea.

c) Gehigarria: kontserbatu nahi diren habitat- eta espezie-moten kontserbazio-egoeraren jarraipenari buruzko fitxak.

2.– Arau-izaerako xedapenak honako hauek dira:

2.1.– Helburu eta neurriei buruzko dokumentutik 5., 6., 8., 10. eta 12. tituluak eta 7. eta 9. tituluak helburu eta neurriei buruzko koadroak.

2.2.– Artikulu honetako 1.b.1 paragrafoko eremuaren mugaketaren kartografia,

2.3.– Artikulu honetako 1.b.3 paragrafoko kudeaketarako zonakatzearen kartografia.

Xedapen horiek dekretu honen eranskinean argitaratzen dira. Gainerakoak informatzekoak eta orientagarriak dira.

3.– Kontserbazio-neurrietan funtsezkoak ez diren berrikusketak edo aldaketak ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango ditu, agindu bidez, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa betez. Izan ere, kontserbazioa eta kudeaketa moldaerazak, etengabeak eta malguak izan daitezzen lan egitea da helburua. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, 26/2007 Legeak ezarri bezala; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturazaintza organoaren txostena jasoko da.

4.– Ingurumenaren alorreko sailaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri kartografia –formatu digitalean, eta eremu horien mugaketa adierazita- eta kontserbazio-neurriei buruzko agiri guztiak.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Kontserbazio Bereziko Eremuaren eguneratzea.

1.– Kontserbazio Bereziko Eremuaren mugaketaren eguneratzea Europako Batzordeak hartutako Erabakiaren iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2.– Dekretu hau indarrean jartzen den unetik eta KBEaren mugaketa benetan eguneratzen den arte, lehen paragrafoan adierazitakoa betez, mugaketan eguneratu nahi diren eremuetan prebentziozko erregimena aplikatuko da, hain zuzen, 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.2 eta 6.3 artikuluan ezarritakoa eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.2 eta 45.4 artikuluetan ezarritakoa.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Baimena.

Ingurumenaren alorreko sailburuari baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak, bai Estatuaren Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomi-

koa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

Bigarrena.– Ministeriora helaraztea.

Gobernu Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora bidaliko du dekretu honen onspena, hark Europako Batzordera bidal dezan.

Hirugarrena.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 16an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I. ERANSKINA

IZARRAITZ (ES2120003) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN KARTOGRAFIA

MUGAKETA

(Ikus mapa)

[Http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_217_2012/conf_LIC_ZEC.xml&lang=eu](http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_217_2012/conf_LIC_ZEC.xml&lang=eu)

ZONAKATZEA.

(Ikus mapa)

[Http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_217_2012/conf_ZON.xml&lang=eu](http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_217_2012/conf_ZON.xml&lang=eu)

II.ERANSKINA

IZARRAITZ (ES2120003) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN

HELBURU ETA NEURRIAK

OINARRIZKOAK EDO KUDEAKETA-HELBURU DIREN ELEMENTUAK

Pagoeta babes bereziko eremu izendatzera bultzatu duten basa espezieak eta habitat naturalak eta Euskal Herriko biodibertsitatearen kontserbaziorako interesa dutenak oinarrizko elementu edo kudeaketaren helburu dira. Horrela, kontserbazio egoera onean mantentzeko kudeaketarako neurri aktiboak hartu behar dira. Beraz, objektuen katalogo bat osatzen dute, eta objektu hauen gain neurri aktiboak, zuzentzarauak eta arauak definitu eta garatu behar dira.

Oinarrizko elementu eta objektuen bitartez egindako hurbilketak, tokiko elementu esanguratsuak kontserbatzeko hartu beharreko neurriak hartzea baimentzen du, eta ekosistemak orokorrean hartuta baino errazagoa egiten du ebaluaketa, ahaztu gabe azken helburua ekosistemen egoera kontserbatzea dela.

Horrela, oinarrizko elementu edo kudeaketarako objektuak aukeratzeko ondorengo irizpideak hartu dira kontuan:

- Eremuan garrantzi handia duten eta Natura 2000 Sarean (eskualdean, estatuan eta Europako erkidegoan) zaintzeko garrantzitsuak diren habitat eta espezieak, baldin eta egoera txarrean badaude eta zaintzeko kontserbazio neurri aktiboak hartu behar badira.
- Kontserbazio egoera bermatzeko, erregulatzea, moldatzea edo faboratzea beharrezkoa den giza erabileren menpekoak diren habitat edo espezieak.
- Beraiengan eragiteak beste espezie edo habitatengan, edo tokiaren osotasun ekologikoarengan onura ekarriko lukeen habitat edo espezieak.
- Beharrezko neurriak hartu ezean egoera txarrean egotera irits daitezkeela ikusi den habitat edo espezieak, eta baita talde taxonomiko baten edo ekosistema baten egoeraren adierazle onak izan daitezkeena, eta beraz monitorizatze lan espezifikoak eskatzen dutenak.

1.- HABITATAK

Oinarrizko elementua	Justifikazioa
<p>1. Bertako baso hostogalkorrak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pagadi azidofilo atlantikoa (kodea: UE 9120) • Pagadi basofilo edo neutroa • <i>Quercus robur</i> nagusi duen baso azidofiloa • Amilburu karetsuko baso misto heldua (kodea: UE 9180*). 	<ul style="list-style-type: none"> - Europako erkidegoan edo estatuan eta EAEn interesa duten habitat naturalak dira. - Pagadi eta hariztiak animalia espezie ugariaren hazleku, babesgune eta elikatzeko tokiak dira; animalia horietako batzuk, gainera, mehatxatuta daude. - Ibaien goi-ibar eta ertzetako basoek lurzorua higaduratik babesten dute eta ura kalitatezkoa eta garbia izatea bermatzen dute; hori oso garrantzitsua da eremu karstikoetan. - Halaber, basoek CO₂ xurgatzen dute eta naturan aisiarako eta olgetarako espazioak eskaintzen dituzte. - Pago eta haritz motzak eta zuhaitz zahar interesgarriak daude; izan ere, briofito, liken eta basoko ornogabe espezie ugariaren babesleku dira (espezie horietako asko mehatxatuta daude). - Amilburu karetsuko baso mistoak oso sakabana-tuta daude EAEn. Horregatik, Izarraitzeko BBEkoa funtsezkoa da baso mota horiek zaintzeko.
<p>2. Sasiak, bazkalekuak eta haiei lotutako fauna</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Ulex</i> espeziea nagusi den txilardi atlantikoa (cod. UE 4030) • Txilardi karezale atlantikoa, genistekin (kodea: UE 4090) • <i>Agrostis</i> eta <i>Festuca</i> belardi menditarrak (kodea: UE 6230). • Mozteko zelai atlantikoak, bazkarako erabiltzen ez direnak (kodea: UE 6510) • Kareharrizko bazkaleku harritarrak (kodea: UE 6210) • Mesobromion albitz-belardi eta bazkalekuak (kodea: Mesobromion albitz-belardi eta bazkalekuak (kodea: 	<ul style="list-style-type: none"> - Bazkaleku eta sasi mota eta azpimota guztiak interes komunitarioko habitatak dira. - Gainbehera egiten ari diren edo egoera ezezaguna duten populazioak dauzkaten espezieei babesa eta elikagaiak eskaintzen dizkiete. - Habitat horiek zaintzeko gainbehera egiten ari diren jarduera tradizionalei eutsi behar zaie.

2.- ESPEZIEAK

Oinarrizko elementua	Justifikazioa
3. Ibai-karramarroa (<i>Austropotamobius pallipes</i>)	<p>- Ibai-karramarroa BBetik gertu dagoen erreka batean bizi da; estatuko katalogoaren eta Habitaten Zuzentarauaren arabera, babestuta dago.</p> <p>- Goltzibar errekan ere egon ziren ibai-karramarroak. Alde horretatik, erreka baldintzak egokiak dira ibai-karramarroa berriz sartzeko, ez baitago izurria (<i>Afanomycosis</i>) kutsatzen duen karramarro aloktonorik.</p>
4. Kiropteroak <ul style="list-style-type: none"> • Ferra-saguzar handia (<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>) • Natterer saguzarra (<i>Myotis nattereri</i>) • Gau-saguzar txikia (<i>Nyctalus leisleri</i>) • Saguzar arrunta (<i>Pipistrellus pipistrellus</i>) • Kuhl saguzarra (<i>Pipistrellus kuhlii</i>) • Baratze-saguzarra (<i>Eptesicus serotinus</i>) • Geoffroy saguzarra (<i>Myotis emarginatus</i>) • Hegoaldeko belarriluze arrea (<i>Plecotus austriacus</i>) • Iparraldeko belarriluze arrea (<i>Plecotus auritus</i>) 	<p>- Ez dakigu zein egoeran dagoen, baina, ustez, ornogabe espezie mehatxatuenetako bat da. Kiropteroen gainean espezie haitzulotar batzuei buruzko datu batzuk besterik ez dauzkagu.</p> <p>- Izarraitzeko BBEda karstikoa denez, fauna haitzulotarrarentzako leize egoki asko daude; espezie horiek oso espezializatuta daude eta, batzuk, gainera, endemikoak dira.</p> <p>- Habitat horiei edozein gorabeherak asko eragiten die.</p> <p>- <i>Rh. Ferrumequinum</i>, <i>M. emarginatus</i> eta <i>Rh. hipposideros</i> Habitaten Zuzentarauaren II. eranskinetan daude.</p>

BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN DAUDEN HABITAT NATURALAK, FLORA ETA FAUNA

Kudeaketa aktiboa eta beraz neurriak, jarraibideak eta arauak ondo definitzea exijitzen duten oinarrizko elementuez gain, «babes erregimen berezikoak» kontsideratzen diren habitatak eta flora eta fauna basa espezieak aukeratzen dira.

Bereziki babesteko habitat natural eta espezieek arreta eta babes bereziak behar dituzte, honako arrazoi hauengatik: balio zientifiko, ekologiko edo kulturala dutelako; bereziak edo arraroak direlako edo mehatxatuta daudelako; edo Habitaten eta Hegaztien Zuzentaruaren eranskinetan edo Mehatxatutako Espezieen estatuko eta EAeko katalogoetan ageri direlako. Izan ere, habitat eta espezie horiengatik izendatu da Izarraitz babestutako eta Natura 2000 Sareko eremu, eta, horrengatik, behar bezala zaindu behar dira.

Oraingoz kudeaketarako neurri aktiborik ez dute beharko beraien kontserbazioa oinarrizko elementuren batengan hartutako neurriekin bermatuta gelditzen diren espezie eta habitatak.

Babes berezia behar duten habitat eta espezieak hauek dira:

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

Habitatak	Habitat Zuzent.	Hegazti Zuzent.	CEEA	CVEA
Artadi kantauriarra (9340)	E			
Harkaizti basikoetako landaredia (8210)	E			
Leize kontinentalak (8310)	E			
Espezieak				
<i>Narcissus, pseudonarcissus</i> taldea	II		LESRPE	IE
Gorostia (<i>Ilex aquifolium</i>)				IE
Hagina (<i>Taxus baccata</i>)				IE
Azeri-mahatsa (<i>Paris quadrifolia</i>)				R
Quimper barraskiloa (<i>Elona quimperiana</i>)	II-IV		LESRPE	
Aingira (<i>Anguilla anguilla</i>)				
Ibai-amuarraina (<i>Salmo trutta m. fario</i>)				
Uhandre marmolairea (<i>Triturus marmoratus</i>)	IV		LESRPE	
Txantxikua (<i>Alytes obstetricans</i>)	IV		LESRPE	
Zirauna (<i>Anguis fragilis</i>)	IV		LESRPE	
Horma-sugandila (<i>Podarcis muralis</i>)	IV		LESRPE	
Hegoaldeko suge leuna (<i>Coronella girondica</i>)	IV		LESRPE	
Eskulapioren sugea (<i>Zamenis longissimus</i>)	IV		LESRPE	IE
Schreiber muskerra (<i>Lacerta schreiberi</i>)	II		LESRPE	IE
Azorea (<i>Accipiter gentilis</i>)		I	LESRPE	R
Zata arrunta (<i>Caprimulgus europaeus</i>)		I	LESRPE	IE
Ur zozoa (<i>Cinclus cinclus</i>)		--	LESRPE	IE
Arrano sugezalea (<i>Circaetus gallicus</i>)		I	LESRPE	R
Mirotz zuria (<i>Circus cyaneus</i>)		I	LESRPE	IE
Belatz handia (<i>Falco peregrinus</i>)		I	LESRPE	R
Sai arrea (<i>Gyps fulvus</i>)		I	LESRPE	IE
Antzandobia (<i>Lanius collurio</i>)		I	LESRPE	
Miru beltza (<i>Milvus migrans</i>)		I	LESRPE	
Harkaitz-zozo gorria (<i>Monticola saxatilis</i>)		--	LESRPE	IE
Sai zuria (<i>Neophron percnocterus</i>)		I	VU	VU
Zapelatz liztorjalea (<i>Pernis apivorus</i>)		I	LESRPE	R
Mendi-tuntuna (<i>Prunella collaris</i>)		--	LESRPE	IE
Belatxinga mokogorria (<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>)		I	LESRPE	IE
Etze txinboa (<i>Sylvia undata</i>)		I	LESRPE	
Gato montés (<i>Felis silvestris</i>)	IV		LESRPE	IE
Muxar grisa (<i>Glis glis</i>)				VU
Bisoi europarra (<i>Mustela lutreola</i>)	II-IV		EP	EP

Habitat eta Hegazti Zuzentarauen eranskinak. CEEA, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa. CVEA, EAEko Espezie Mehatxatuen katalogoa. LESRPE, Babes bereziko erregimenean dauden basa-espezieen zerranda. PE, desagertzeko arriskuan. VU, zaurgarria. R, arraroa.

OINARRIZKOAK EDO KUDEAKETA-HELBURU DIREN ELEMENTUENTZAKO HELBURU ETA NEURRIAK

Oinarrizko elementu bakoitzarentzat gaur egungo egoera definitzen da. «Habitat baten kontserbazio egoera», habitatarengan eta bertan bizi diren ohiko espezieengan eragiten duten eta bere biziraupena zalantzan jar dezaketen eragileen multzoa da. Habitat natural baten «kontserbazio egoera» «onuragarria» kontsideratzen da, bere azalera egonkorra denean edo handitzen denean eta epe luzera mantentzeko eta etorkizunean existitu ahal izateko egitura eta funtzio espezifikoak egokiak direnean. Modu berean, «espezie baten kontserbazio egoera», espeziearengan dauden eragileak eta epe luzera bere populazioen banaketan eta garrantzian zerikusia duten eragileen multzoa dela kontsideratzen da. «Kontserbazio egoera» «faboragarria» dela kontsideratzen da, habitatean epe luzera bere presentzia arriskuan ez dagoela eta beraz, bere banaketa naturala etorkizunean jaitsiko ez dela eta arriskuan egongo ez dela adierazten duten datuak badaude.

Interes komunitarioko habitat eta espezieen kontserbazio egoera ona lortzea da azken helburua, habitat eta espezie mota bakoitzak kalitate aldetik eta banaketa aldetik hobera egin dezan lortzea eta etorkizunean hobetzen jarrai dezan.

Ahal izan den guztietan Habitat Zuzentaraua aplikatzeko egindako informean (17. artikulua) gomendatzen diren parametro kuantitatiboak erabili dira. Horrekin, informazio estandarizatua eta konparagarria edukitzea lortu nahi da, Estatu mailako eta komunitateko oinarrizko legedia betetzeko eta etorkizuneko informeak bete ahal izateko. Horretarako, oinarrizko elementu gisa aukeratu diren habitat eta espezie guztien kontserbazio egoerari buruzko fitxak sartuko dira eranskinean, testu deskribapenekin batera. Deskribapeneko koadroak fitxa horien laburpenak dira.

Kontserbazio egoera definitzeko erreferentziazko balore argiak eta kontagarriak definitzea aholkatzen da. Kontserbazio egoera faboragarriaren definizioa eta kontserbazio egoera baloratzeko kalibrazioak ikerketa lan garrantzitsua eskatzen du. Gaur egun, kasu gehienetan ez dago horri buruzko informazio egoki eta nahikorik.

KBEn dauden habitaten artean, kontserbazio egoera baloratzeko lehen urratsak eman dira, banaketaren kartografia eginez, baina bere kontserbazio egoera baloratzeko adierazle kuantitatiborik ez dago.

Kasu hauetan, planaren helburu da informazio gabezia horiek zehaztea eta oinarrizko elementuen alde, gaur egungo kontserbazio egoera zehatzago definitu ahal izateko neurriak ezartzea.

Behin oinarrizko elementu guztien gaur egungo egoera zehaztuta, amaierako helburuak proposatzen dira, bakoitzaren kontserbazio egoera ona bermatzea ahalbidetuko dutenak. Helburu horiek ezingo dira beti plana indarrean dagoen bitartean lortu. Askotan, erantzun epea edo sistema naturalek eboluzionatzeko behar duten denbora oso luzea izaten da edo abiapuntua oso egoera txarrean dago, beraz, berehalako neurriak planteatzen badira ere, planaren exekuzioaren bitartean hasierako aurrerapausoak besterik ez dira nabarmenduko.

Ondoren, gaur egungo kontserbazio egoera baldintzatzen duten faktoreak deskribatzen dira, oinarrizko elementuek helburu bezala definitu den kontserbazio egoera mantentzea erraztu edo zailduko duten faktoreak. Faktore hauetako batzuk kudeaketa dokumentutik eta kudeatzaileen kompetentzia eta erabakietatik kanpo daude, beraz, plan honetatik at landu behar dira. Hala ere, hori horrela den kasuetan, helburuak lortzea horren menpekoa izan daitekeela kontuan hartuta, atal honetan identifikatuko dira.

Esan bezala, azken helburuak zenbaitetan ezin dira lortu gestio dokumentua aurrera eramateko jarritako sei urteetan. Horregatik, helburu bakoitzerako epe horretan lortu beharreko emaitzak edo helburu operatiboak jarri ditugu, aldeko kontserbazio egoera lortzeko bidea ahalik eta arinen egiteko, dauden bitartekoak kontuan hartuta.

Amaitzeko, emaitza bakoitzarentzat neurriak, kudeaketarako jarraibideak eta arauak definituko dira, emaitza horiek lortzea ahalbidetuko dutenak.

Kasu guztietan, oinarriko elementu eta helburuak definitzeak, ebaluagarriak diren helburuen gainean kudeaketa errazten dute. Hala ere, gogoan eduki behar da, beti, gestio dokumentu honi jarraiki hartutako neurrien helburuak izan behar duela eremuko osotasun ekologikoa zaintzea, Euskal Herrian babestutako eremuen sarea koherentea izan dadin erraztea eta ekosistemen ingurumen ondasun eta zerbitzuak hornitzea.

1.- BERTAKO BASOAK

Kontserbazio egoera

Izarraitzen 581 hektarea baso daude; beraz, eremuaren % 36,5 basoa da. Baso autoktonoak BBE osoan daude banatuta, batik bat basogintzarako eta abeltzaintzarako oso egokiak ez diren mendi-mazeletan eta orbanetan sakabanatuta. Hala ere, eremuaren erdialdean eta hego-mendebaldean bi pagadi basofilo handi eta amilburu karetsuko baso misto heldu batzuk daude.

Azalera potentzialaren % 47an zelaiak, sasiak eta sail aloktonoak daude.

Egiturari dagokionez, zuhaitz motz handi eta zaharrak daude, gehienak pagoak, baina baita haritzak ere. Zuhaitz batzuk sakabanatuta daude eta beste batzuk arboladiak osatzen dituzte; arboladi horietan baso helduen bereizgarri diren fauna eta flora oso arraroarentzako mikrohabitatak daude.

Pagadiak

Pagadi basofilo edo neutroa (EUNIS kodea: G1.64) **eta pagadi azidofilo atlantikoa** (UE kodea:

Pagadi basofiloak 335 hektarea dauzka: BBE osoaren % 21 eta azalera potentzialaren % 44. EAEn, era horretako habitatek guztira 21.659 hektarea dauzkate; beraz, Izarraitzekoek EAEko azalera osoaren % 1,5 besterik ez dute hartzen.

Lurralde osoan 39 orban daude, handienak hegoaldean. Orbanek, batez beste, 8,6 hektarea dauzkate (txikienak hektarea bat eta handienak 159 hektarea). Orbanen arteko batezbesteko distantzia 115 metrokoa da. Dimentsio fraktalaren (Mfrac) batezbestekoa hau da:

Pagadi azidofiloek, guztira, 13 hektarea bakarrik dauzkate: 13 orban txiki daude, gehienak Badiolegitxon; Zelai Txikin ere (Deban) bi orban txiki daude.

Beraz, pagadi azidofiloek BBE osoaren % 1 besterik ez dute hartzen; portzentaje hori azalera potentzialaren portzentajearen oso antzekoa da. EAEn, era horretako habitatek guztira 14.703 hektarea dauzkate. Hortaz, BBEko pagadi azidofiloek pisu gutxi dute EAEn. Orbanen arteko batezbesteko distantzia 194 metrokoa da, eta dimentsio fraktalaren (Mfrac) batezbestekoa 1,404.

Egitura bertikalaren eta landaretzaren osaeraren egoerari buruzko informazio kuantitatiborik ez dago. Adituen arabera, pagadi basofiloak azidofiloak baino aberatsagoak dira. Bi pagadi mota horietan ale motz asko daude; horregatik, faunarentzako txoko ekologiko asko daude, zuloetan.

Pagadien funtzionaltasuna eta osotasuna ebaluatzeko daturik ez dago. Espezie bereizgarrien oparotasuna oinarri hartuta neurtu daiteke alderdi hori, zeharbidez, baina populazioen gaineko daturik ere ez dago; hala ere, interes komunitarioko zenbait espezie daude, adibidez: *Elona quimperiana* barraskiloa, zapelatz liztorjalea (*Pernis apivorus*) eta aztorea (*Accipiter gentilis*).

Etorkizuna ere aldeko izango dutela dirudi: gaur egun egurra ez da ustiatzen (isolatutako zuhaitz bakan batzuk motzen dituzte eta ganaduak adar puntetako adaxkak eta hostoak jan besterik ez du egiten), txanda motzeko espezieen sailen presioak behera egin du eta basoak zaintzeko gestionatzen dira, gero eta gehiago.

Pagadi basofilo edo neutroa Desegokia-kaltegarria			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia-kaltegarria	Ezezaguna	Ezezaguna	Ona-aldekoa
Pagadi azidofiloa Txarra-kaltegarria			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia-kaltegarria	Txarra-kaltegarria	Ezezaguna	Ona-aldekoa

Hariztiak***Quercus robur* espeziea nagusi duten baso azidofiloak** (EUNIS kodea: G1.86)

BBEan, guztira, 33 hektarea harizti daude: eremuaren % 2 eta azalera potentzialaren % 11. EAEn era horretako habitatek guztira 34.036 hektarea dauzkate; BBEan, beraz, % 0,1 besterik ez dago.

Guztira 19 orban daude, batez beste 1,8 hektareakoak: txikienak hektarea bat baino gutxiago dauka eta handienak 16 hektarea (BBEaren ipar-ekialdeko mugan dago). Orbanen arteko batezbesteko distantzia 384 metrokoa da, eta dimentsio fraktala (Mfrac) 1,551. Dena den, datu horiek kontu handiz interpretatu behar dira, analisisa egin baita aintzat hartu gabe BBEaren mugan eremutik kanpo luzatzen diren orbanak daudela eta beste baso tipologia batzuekin bat egin dezaketela.

Era horretako basoen egitura eta funtzionaltasuna ebaluatzeko daturik ez dago.

Pagadien kasuan bezala eta arrazoi berberengatik, badirudi era horretako habitatek etorkizuna aldeko izango dutela.

<i>Quercus robur</i> nagusi duen baso azidofiloa: Desegokia-kaltegarria			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia-kaltegarria	Ezezaguna	Ezezaguna	Ona-aldekoa

Hegaletako basoak**Amilburu karetsuko baso mistoak** (UE kodea: 9180*)

EAEn, baso horiek 653 hektarea dauzkate eta azalera horren % 64 Natura 2000 Sarean dago. Handiak ez diren arren, BBEaren 182 hektarea dauzkate hartuta, hau da, eremu osoaren % 11. EAEko mota horretako basoen %28 Izarraitzen dago. Izarraitzen EAEn mota horretako basoen % 28 dago. Horregatik, habitata zaintzeko eremu garrantzitsua da.

Izarraitzen guztira 13 orban daude, batez beste 14 hektareakoak: orban txikiak 0,3 hektarea dauzka eta handienak 56 hektarea, KBEko lurralde osoan. Mfrac, 1,352.

Habitat mota hauen kontserbazio egoera ebaluatzeko datu kuantitatiborik ez dago. Hala ere, ikusi da orban guztien kontserbazio egoera ez dela berbera. Porrutako sakoneko iparraldeko hegalean heltzen erraza den orban bat dago, perimetroa itxita; orban horretan ikusten da lurra ganaduak zapalduta dagoela, ez dagoela zuhaitz gazteen landarerik, ezta oihanperik ere, eta lurra izugarri trinkotuta dagoela. Zonan plastiko eta uralita hondarrak daude sakabanatuta. Egitura bertikala pobrea da. Ahuntz eta zaldi aziendak libre ibiltzen dira mendi-mazela guztietan.

Porrutako sakoneko eta Sagarretako sakoneko hegoaldeko mazelatan bitarteko orbanak daude, txilardi karezale baten eta amilburu karetsuko baso misto baten artean; orban horietan oso garatuta dagoen zuhaixka arantzadunen estratu bat dago.

Habitat honen eredu onenak Goltzibarren eta Errillako puntan daude, leku maldatsuak eta heltzen zailak direlako eta pagadi basofiloekin bat egiten dutelako.

Tokian tokiko zenbait inpaktu daude; Goltzibar baserriaren ondoko harrobiak, adibidez, habitataren azalera gutxitzea eragin zuen (gaur egun harrobia utzita dago). Halaber, Goltzibarreko hegaleko basoan orain dela gutxi nahita piztutako sute baten hondarrak daude.

Amilburu karetsuko baso mistoa Desegokia-kaltegarria

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
	Desegokia-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria

Baldintzak

Bertako basoak, ustiatzeari utzi dietenez, heltzen ari dira, eta hori oso ona da baso horien eta haiei lotutako espezieen populazioen kontserbazio egoera hobetzeko.

Espezie aloktonoen baso sailak lur pribatuetan daude. Sail horietarako diru-laguntzak kenduz gero, ez lirateke errentagarriak izango eta, beraz, lehengoratzeko aukera egongo litzateke, politika publikoak ingurumen zerbitzuen ordainketa sistemetara bideratuz. Sail aloktonoen % 88 helduak dira eta batzuk utzita eta zahartuta daude, baso potentzialaren oihanpe eta guzti.

Jabeek ondo hartzen dituzte administrazioko teknikarien aholkuak, baina % 98k ez daki Landa Garapeneko Programan basoak berritzeko eta hobetzeko laguntzak daudela. Laguntza horiek eremuan daukaten eragin eta eraginkortasunaren gaineko daturik ez dago.

Zuhaitz motzak larri daude, 50. hamarkadan lepatzeko teknika erabiltzeari utzi ziotelako. Baso heldurik ez dagoenez, zuhaitz berezi horiek jausiz gero, mehatxatutako espezieentzat hil ala bizikoak diren elementuak desagertuko lirateke. Espezie horiek (presente daudenak edo potentzialak) zuloak, hildako egurra edo habitat txiki jakin batzuk behar dituzte bizitzeko, adibidez: zuhaitz motzen zuloetan sortzen diren putzu txikiak.

Zuhaitz heldu eta motzak gutxi gorabehera non dauden badakigu, baina ez dakigu zehatz-zehatz zenbat diren. Beraz, ez dago zuhaitz horien eta basoko flora eta faunarentzat baliotsuak diren beste habitat txikien kartografia zehatzik.

Orban batzuetan, basoan sartzen den ganaduak zuhaitzen eta plantulen kimu berriak deuseztatzen ditu eta basoa berritzea eragozten du, esaterako, Azketako lepoko pagadian, Porrutako sakoneko hegaleko basoan eta Badiolegitxo erreka ondoko pagadi azidofiloetan.

Baldintza ekologikoak lehengoratzeko teknika batzuen bitartez, naturaltasun gutxiko pagadiak kontserbazeko baldintzak errazago sor daitezke; baina ez dago era horretako jarduera ildoak aurrera eramateko finantza baliabide nahikorik.

Halaber, ez dago basoen kontserbazioari buruzko adierazle fidagarri eta alderagarririk, ezta epe motzeko aldaketak jaso ditzakeen adierazlerik, gestioa bideratzeko. Basoko ekosistemek gestioari nola erantzuten dioten neurtzeko parametroak epe luzekoak dira eta, beraz, ez dira erabilgarriak.

Basoak lehengoratzeko inbertsioek ez diete mesede egiten biodibertsitatearen kontserbazioari bakarrik, baita ugalkortasunari, karbonoaren atxikitzeari, basoen berritzeari, fauna zinegetikoari eta, baita ere, izurrien orekari. Azterlan askotan egiaztatu dute hildako zuhaitzetan intsektu suntsitzaileen populazioak eta izurriak kontrolatzen dituzten hainbat parasitoide eta harrapari bizi direla (NAGELEISEN, 2002; hemen: VALLAURI *et al.*, 2002).

Ikerketa batzuen arabera, txanda motzeko sailek basoek baino ahalmen gehiago dute CO₂ atxikitzeko. Baina kalkulu horiek egiteko ez dituzte kontuan hartzen basoetako lurzoruan atxikitzen den CO₂, ezta ateratako egurraren produktu eratorrien bizi ziklo osoa eta egur hori eraldatzeko kostu energetikoak ere; izan ere, eraldaketa horretan edo produktu horietako batzuen kontsumoan, atxikitako CO₂ atmosferara isurtzen da berriro eta basoetan, aldiz, CO₂ hori pilatutako materia organikoan geratzen da.

Amilburu karetsuko baso mistoak oso zaurgarriak dira, substratu harritsuaren ezegonkortasunagatik, lixibiazioari lotutako lehortasun eta malda handiengatik, higadura arriskuagatik eta basoen beren bakantagatik. Baso misto horiek egurra ekoizteko baso sailekin harremanetan jartzen direnean (Izarraitzen hori gertatzen da), ustiaketa jarduerak baso mistoak kaltetu ditzakete; izan ere, ezegonkorak eta zaurgarriak dira eta ez da komeni makinak erabiltzea, pistak egitea eta ibilgailuak ibiltzea.

Helburu eta neurriak

1. Helburua	Zuhaiztien % 75, gutxienez, baso heldu eta zatitu gabeak izatea.
1.1 emaitza	Baso autoktonoen azalerari gutxienez 35 hektarea gehitzea eta basoak hain zatituta ez egotea.
Neurriak	<ol style="list-style-type: none"> 1) Planaren indarraldiko lehen bi urteetan baso sailek hartutako azaleraren % 30 identifikatzea, gehienez, eta Baso Aprobetxamendu Intentsiboko Zona gisa jartzea, betiere lekua zaintzeko helburuekin bateragarria bada. Gainerakoa Lehengoratze Ekologikoko Zona izango da, eta helburua basoa lehengoratzea. por lo que llegado el turno de corta de las actuales plantaciones no se podrán asignar ayudas públicas para la plantación de nuevas especies exóticas ni para ninguna otra actividad cuyo fin no sea la restauración del bosque original. 2) Planak irauten duen denboran, bertako basoa berreskuratzea, gutxienez Lehengoratze Ekologikoko Zonetako (LEZ) baso sailen % 10. Planak irauten duen denboran jatorrizko basoa berreskuratzea, gutxienez Lehengoratze Ekologikoko Zonetako (LEZ) baso sailen % 10. Lehentasuna izango dute Goltzibar errearen goi-ibarreko (Salzakortako) alertze sailak eta gaur egungo basoen arteko distantzia gutxitu dezaketen edo basoen ondoan dauden lursailak (Badiolegitxo eta Olazabal behekoak, adibidez), eta horien barruan mozteko txanda heldu zaien sailak. Lursail pribatuak lehengoratze aldera, jabeekin kontserbazio edo betikotasun hitzarmenak adostuko dira, hala badagokie. 3) Landa Garapen Iraunkorreko Planeko (LGIP) neurriek BBEan duten eragina eta eraginkortasuna aztertzea, txanda luzeko espezieak landatzea sustatzeko, bereziki jatorrizko basoetakoak. Horretarako, biodibertsitatea neurtzeko adierazleak erabiliko dira eta, behar izanez gero, adierazle horiek hobeto aplikatzeko aholkuak emango dira; hori, baso sailen azaleraren % 70 hartu arte. 4) Zatiketa adierazle ezberdinen egokitasuna ebaluatu eta EAEko Natura 2000

	Sarearentzat eraginkorra dena aukeratu. Ebaluatu behar dira, gutxienez, SEBI 2010 Proiektuak proposatutako indizea (GUIDOS eredu oinarri hartuta kalkulaturakoa) eta basoen zatiketaren indizea (F), gaur egun EAerako proposaturakoa. Balore objektiboa ezarriko da eta jarraipen protokoloa.
Jarraibideak	<p>5) Baso potentzialen berritze eta berreskuratze naturala aurreratua dagoen sailai dagokienez (Putreaitzako pinudi zaharra), lursailen titularrekin akordioak adostuko dira, lehengoratzeko naturala errespetatzeko, eta, ondorioz, Bilakaera Naturaleko Zona (BNZ) izendatuko dira. Betiere, zuhaitz exotiko batzuei gerrikoa jartzea planteatu daiteke, baita berreskuratze prozesua bizkortzeko beste jarduera txiki batzuk ere.</p> <p>6) Eremu pribatuetako baso sailak moztu ondoren (adibidez, Debako Olazabal Behekoa baserri ondoko lursail batean), baso potentziala berreskuratzea sustatuko da, foru dekretuen bitartez urtero araututako laguntzak emanez.</p>
1.2 emaitza	Basoen naturaltasuna hobetzea.
Neurriak	<p>7) Parametro neurgarriak ezartzea, zehatzago baloratu ahal izateko, trantsektoen bidez, pagadien eta hariztien kontserbazio egoera; eta gaur egungo balioak zehaztea. Ondorengo parametroak proposatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - zuhaitz espezie nagusiaren dentsitatea eta oinen eremua, - errezeleko eta zuhaixka geruzako bigarren mailako espezieen dibertsitatea, - adinen banaketa, - oineko eta lurzoruko hildako egur kantitatea eta mota, - soilguneen eta zuhaitz helduen dentsitatea, - eta espezie exotikoen ugaritasuna eta estaldura. <p>8) Dekretua abian jarri eta lehenbiziko bi urteetan Izarraitzeko baso mota eta azpimoten sail onenak identifikatzea eta Bilakaera Naturaleko Zona izendatzea; eremu horiek basoen % 20 hartu behar dute, gutxienez.</p> <p>9) «Inventario abierto georreferenciado de elementos naturales, culturales y geomorfológicos de valor para la fauna y flora silvestre inventario irekia» egitea eta inventario horretan sartzea biodibertsitaterako garrantzitsuak diren putzu, urmael, soilgune, ekotono, zuhaixka formako espezieen unada eta basoetako eta baso inguruetakoko elementu kultural eta naturalak. Inventario horretako elementu eta lekuak Zorrotz Babesteko Zona (ZBZ) gisa sailkatuko dira.</p> <p>10) Berritze naturala babestea: ganaduarentzako hesiak jartzea eta Azketako lepoko pagadian (Azpeitiko Udalarena da) soilgune txikiak egitea, adibidez.</p> <p>11) Azketako lepoan eta Badiolegitxon ale zaharrak dauzkaten pagadi azidofiloak babesteko landaketak egitea. Dauden mendi-bideen ertzetan, batik bat aipatu pagadietan, bigarren mailako zuhaitz espezieak sakabanatzeko unadak landatzea sustatzea.</p> <p>12) Egurra aprobeztatzeko basoen eta berritzeko arazoak dauzkaten basoen jabeekin kontserbazio hitzarmenak adostea sustatzea, baso horietan abeltzaintza jarduera antolatzeko. Lehentasuna izango dute Badiolegitxoko pagadi azidofiloek eta Porrutako sakoneko amilburu karetsuko baso mistoak. Behar izanez gero, itxiturak jartzea, basoak errazago berritzeko. Betiere, bermatuko da ganaduak behar adina ur eta itzal edukitzea; izan ere, Xoxoten, Kakuta atzealdean eta Azketako hegalean ganaduak itzalean bazkatzeko ezinbesteko dituen lursailak daude.</p>

	<p>13) LGIPEko neurriek BEEan duten eragina eta eraginkortasuna aztertzea, «zuhaitz autoktonoak dauzkaten basotxoak zaintzeko eta berritze aldera». Horretarako, biodibertsitatea neurtzeko adierazleak erabiliko dira eta, behar izanez gero, adierazle horiek hobeto aplikatzeko aholkuak emango dira; hori, onuradun potentzialen % 20ra heldu arte.</p> <p>14) Harizti eta pagadietan zuhaitzi eta landare aloktonoak aurkitzea eta ale horiek erazteko programa bat ezartzea. Espezie inbaditzaileek izango dute lehentasuna eta EAEko flora eta fauna exotiko inbaditzaileen diagnostikoak (Eusko Jaurlaritza, 2009) hartuko dira erreferentziatzat; hori guztia, betiere, jabeekin adostuta.</p>
Arauk	<p>15) Basoak antolatzekeo proiektuak ingurumen aldetik ebaluatuko dira eta helburuak, adierazle neurgarriak eta neurri espezifikoak izango dituzte, basoetako biodibertsitatea babesteko, naturaltasun eta osotasun ekologikoa hobetzeko eta ingurumen zerbitzuen prestazioa bermatzeko. Neurri horiek zehaztuko dira behar izanez gero ingurumen kontratuetan edo jabe pribatuekin adosteko kontserbazio akordioetan sartzeko moduan. Basoak antolatzekeo proiektuek idazteko edo garatzeko laguntzak jasotzen badituzte, laguntzen % 40, gutxienez, neurri espezifiko horiek aplikatzeko erabiliko da.</p> <p>16) Basoei eragiten dien beste edozein plan edo proiektuak biodibertsitatearengan izan ditzakeen eraginak ebaluatu egingo ditu eskudun ingurumen organoak, ebaluazio organo hau proiektuaren sustatzailearekiko independentea izan behar da biak administrazio publikoa diren kasuan.</p> <p>17) Landa Garapenekeo Programaren laguntzak jasotzeko, Basoen Gestio Iraunkorrekeo tresna honetako neurriek bat etorri behar dute plan honetan ezarritakoarekin. Horretarako, pertsona sustatzaileak manuzko txosten loteslea eskatu behar du, foru administrazio eskudunak baimendu edo onartu baino lehen; izan ere, ingurumen administrazio eskudunak eman zuen txosten hori.</p> <p>18) Zonifikazioaren arabera balio natural handia duten eremuetan bide berriak egitea ohiz kanpoko izango da eta, betiere, aurrez ingurumen inpaktua aztertuko da.</p>
Jarraibideak	<p>19) Baso Antolamendu proiektuetako ikuspuntu ekosistemiko eta multifuntzionala aplikatuko da eta erabaki guztiak bertako basoetako ekosistemen biodibertsitatea mantentzera zuzenduak egongo dira.</p>
1.3 emaitza	Interes ekologiko bereziko zuhaitzietan eta zuhaitz motzen unadei eustea.
Neurriak	<p>20) Zuhaitz lepatu, heldu eta zaharrak kokatu, kartografiatu eta georeferentziatu, eta Babes Zorrotzeko Eremuetan (BZE) edo Berrezartze Ekologikoko Eremuetan (BEE) sartu. Horretarako karakterizatu egingo dira hauen kontserbazio egoera ebaluatzekeo eta unada hauen maneiorako plana egin eta martxan jarriko da, plan hau indarrean dagoen bitartean.</p> <p>21) Behar izanez gero, aipatu inbentarioko zuhaitz motz eta zaharren unaden jabeekin kontserbazio hitzarmenak sinatzea. Hitzarmen horien helburua izango da unada bakoitzean mantentze-lan egokiak aurrera eramatea. Sinatutako hitzarmenean sartuko da, behar izanez gero, mantentze-lanak egiteko gaitzea.</p>

Jarraibideak	<p>22) Zuhaitz zaharrak edo interes ekologikoa dutenak markatzeko, ondorengo irizpidek hartuko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Espezie berekoekin konparatuz zirkunferentzia handia izatea. ○ Enborrean hainbat zulo edukitzea. ○ Goikaldean hildako egur kopuru handia izatea. ○ Ura pilatzen den zulo naturalak edukitzea. ○ Zulo zaharrak egotea. ○ Enborrean kalte fisikoak izatea. ○ Azala galtzea. ○ Izerdia botatzeko kanalak edukitzea. ○ Azalean pitzadurak adarren azpian edo enborraren oinarrian. ○ Onddoak. ○ Lotutako fauna espezie asko edukitzea. ○ Landare epifiten presentzia (iratzeak, goroldioak, likenak). ○ Zuhaitz zahar itxura. ○ Erabilera kulturalaren ondoriozko lepaketak. ○ Balio kulturak eta historikoa. ○ Paisaian nagusitzea. ○ Interes estetiko handia izatea.
---------------------	---

2.- SASIAK ETA BAZKALEKUAK

Funtsezko elementuen multzo honetan habitat hauek daude: sasiei dagokienez, txilardi lehor azidofilo atlantikoak (UE kodea: 4030) eta txilardi oromediterraneoak (UE kodea: 4090); eta bazkalekuei dagokienez, *Agrostis* eta *Festuca* belardi menditarrak (UE kodea: 6230), *Mesobromion* albitz-belardi eta bazkaleku erdilehor karedunak (UE kodea: 6210) eta mozteko zelai atlantikoak, bazkarako erabiltzen ez direnak (UE kodea: 6510).

Guztira 477 hektarea hartzen dituzte: sasiek 174 hektarea eta bazkalekuek 303 hektarea.

Habitat horien guztien egoera egokia da EAEn (salbu mozteko zelaiena), bai kopuru aldetik, zuzentzarauan ezarritako gutxieneko adierazpen mailaren gaineratik daudelako, bai banaketa espazialaren aldetik, sareko leku nahikotan daudelako. Beraz, egoera okerragoan dauden habitaten alde haien azalera gutxitzea ez litzateke kezagarria izango.

Gehienetan, egitura horiek hainbat habitatez osatutako mosaikoak izaten dira eta, ondorioz, sortzen diren trantsizio egoerengatik, zaila izaten da habitatak banan-banan interpretatzea.

Edozein modutan, habitaten berezko balioa alde batera utzita, mosaikoa hartu dugu funtsezko elementutzat. Horrek esan nahi du gestioan kontuan hartu behar direla orbanen tamaina eta forma, banaketa, kokapen erlatiboa eta mosaikoaren heterogeneitatea eta dibertsitate biologikoaren kontserbaziorako balioa handitzen dituzten gainerako elementu naturalak.

Ez dago heterogeneitatearen adierazlerik, mosaikoaren sinplifikazioa ebaluatu edo prebenitu ahal izateko. Zeharbidez, bazkaleku eta sasiaren kontserbazio egoera ontzat har dezakegu, berezko dituzten espezieak daudelako.

Kontserbazio egoera**Sasiak**

Txilardi lehor azidofilo atlantikoak (UE kodea: 4030) **eta txilardi oromediterraneo endemikoak, oteekin** (UE kodea: 4090)

Izarraitzeko BBEan egitura horiek guztira 174 hektarea dauzkate; beraz, BBEaren % 17 hartzen dute.

Gaur egun ez dago oparotasunaren, sasien garaieraren eta abarren gaineko datu kuantitatiborik. Hala ere, adituen balorazioaren arabera, kontserbazio egoera ona da, habitatak berezko dituen espezieak daudelako.

Etorkizuna ere oparoa izango dela dirudi, dinamika kolonizatzailea dutelako eta oteak ahalmen handia duelako ganaduak arrastoan sartuta eduki ezin duen espazioa hartzeko.

Europako txilardi lehorrak Ona-aldekoa

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Desegokia-kaltegarria	Ona-aldekoa

Bazkalekuak

Agrostis eta Festuca belardi menditarrak (UE kodea: 6230).

Izarraitzeko BBEan habitat mota honek 60 hektarea dauzka (BBEaren % 4), Xoxoten, hain zuzen, eta mosaiko erako orban handi bat osatzen du, beste habitat hauekin: txilardi lehor azidofilo atlantikoak; txilardi oromediterraneo endemikoak, oteekin; eta *Mesobromion* albitz-belardi eta bazkaleku erdilehor kareduna.

Gaur egun ez daukagu bazkaleku horien kontserbazio egoerari buruzko datu kuantitatiborik, eta zaila da egituraren eta funtzionaltasunaren balioespen kualitatiboa egitea. Hala ere, berezko dituzten espezieak daude eta, beraz, egoera onean daudela esan dezakegu.

Dena den, tokian tokiko kalte batzuk daude, Azpeitik datorren pistak eta beste bide batzuk eragindako higadurak eta Azketako putzuan ganadu ugari biltzeak sortutakoak.

Belaunaldi berriak abeltzaintza jarduerak alde batera uzten ari dira eta horrek kalte egiten die *Nardus stricta* sailei; izan ere, sail horiek, zenbaitetan, sasiak hartzen ditu berehala.

Agrostis eta Festuca belardi menditarrak Desegokia-kaltegarria

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Desegokia-kaltegarria

Mesobromion albitz-belardi eta bazkaleku erdilehor karedunak.

Izarraitzen, habitat mota horrek 205 hektarea dauzka (BBEaren % 13); azalera eta banaketa egokiak dira.

Ez dago datu kuantitatibo gehiago, baina, hala ere, esan dezakegu kontserbazio egoera onargarria dela, osaera eta egitura bat datozelako era horretako larreen eredu tipikoekin.

Dena den, kontuan hartuta abeltzaintza jarduera ezinbestekoa dela habitatari eusteko, baserritar gazteek abeltzaintza alde batera uztea eta sasiak bizkor haztea kaltegarriak dira gerora begira.

Mesobromion albitz-belardi eta bazkaleku erdilehor karedunak Desegokia-kaltegarria			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa	Desegokia-kaltegarria

Mozteko zelai atlantikoak, bazkarako erabiltzen ez direnak (UE kodea: 6510).

EAEEn habitat honen 50.252 hektarea daude, baina % 3 besterik ez dago Natura 2000 Sarean. Hala ere, inbentariatutako azalera neurritz kanpokoak izan daiteke, mozteko zelai batzuk *Cynosurion* espeziearenak direlako; zelai horiek landare aldetik ez dira hain aberatsak. Zehazki, EAEko 31 lekutan daude era horretako zelaiak. Izarraitzeko BBEan, mozteko zelaiek 38 hektarea dauzkate.

Habitata atzera egiten ari da eta EAEko mehatxatuenetako bat da, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren premia duelako eta nekazari eta abeltzainak jarduera horiek uzten ari direlako.

Kontuan hartuta mozteko zelai horiek gaur egun nola maneiatzen diren, pentsa dezakegu kontserbazio egoera txarra izango dela, eredu tipikoekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, kontserbazio egoera zein den zehazteko osaera floristikoa zehatz-mehatz aztertu beharra dago.

Mozteko zelai atlantikoak, bazkarako erabiltzen ez direnak: txarra-kaltegarria			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Desegokia-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria	Txarra-kaltegarria

Baldintzak

Ez dago sasi eta bazkalekuen kontserbazio egoerari buruzko adierazle kuantitatiborik, ezta osatzen duten mosaiko dinamikoaren gainekorik ere.

BBEan, tradizioz, sasiak erre dituzte bazkalekuak sortzeko eta sasiaren azalerari eusteko. Otea landare pirogenikoa da: suak haziak sakabanatzea errazten du. Sasiak erretzea ohiko jarduera da, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendu behar du eta kontrolatu egin behar da. Aldundiak gero eta baimen gutxiago ematen ditu, suteak sortzeko arriskua dagoelako.

Azienda ezinbestekoa da habitatari epe ertain eta luzean eusteko, higadura prozesurik sortu gabe eta landareak zurrara izan arte heldu gabe.

Ez dakigu gaur egungo abeltzaintza karga zein den. Bazkalekuak kontserbazio egoera onean edukitzeko karga egokia zein den azaltzen duen azterlanik ere ez dago. Ondorioz, abeltzaintza jarduera ez dago araututa eta gestioa ez dago planifikatuta. Gauzak horrela, zona batzuetan ganadu gehiegi dagoela iruditu arren, sua baliatu behar izaten dute, adibidez, Sagarretakoko sakonean, Erlo hegoaldean, Porrutako sakonean inguruan eta Attola Berrin; hori, 3-10 urtez behin.

Gaur egun, kargei, ganadua maneiatzeko sistemei eta abeltzainek eskatuta egiten diren soiltzei esker, bazkaleku eta sasiak ondoen dauden habitaten eremuak (leku lau garaiak) zainduta daude. Oreka hori, ordea, ahula da, ganaduaren karga pixka bat gutxitzeak eragin handia izan dezakeelako habitat horien kontserbazioan. Otea agertzea moteldu daiteke ganaduaren karga handituta eta zaldi azienda modu kontrolatuan baliatuta.

Xoxote inguruan eta Azketako putzuan biltzen den ganaduak lurra higatu du.

Ez dakigu zenbat baserritarrek jasotzen dituzten abeltzaintza estentsiboa babesteko eta mozteko zelaiei eusteko Landa Garapeneko Programako nekazaritza eta ingurumen laguntzak; eta ez dakigu, ezta ere, baserritarrek neurri horiek zenbateraino onartzen edo baztertzen dituzten eta zergatik. Gipuzkoako beste leku batzuetan egindako landa-lan batean, jabeen % 92k dio ez dakiela laguntza horiek zertan diren.

Helburu eta neurriak	
2. Helburua	Bazkaleku eta sasiengaur egungo azalerari eta mosaiko egiturari eustea.
2.1 emaitza	Adierazle kuantitatiboen bitartez bazkalekuen, sasiengaur eta mosaikoaren gaur egungo kontserbazio egoera eta aldeko baldintzak zertan diren jakitea.
Neurriak	<p>23) Kontserbazio egoerari buruzko adierazle kuantitatiboak ezartzea eta segimendu protokolo bat jartzea; adierazle horiek kontuan hartu behar dituzte, gutxienez, bazkaleku eta sasiengaur osaera eta egitura.</p> <p>24) Sasi eta bazkalekuek osatzen dituzten mosaikoen heterogeneitate indizea kalkulatzeko eta aldeko kontserbazio egoeraren erreferentzia balioztatuz hartzea.</p> <p>25) Lursail sare bat ezartzea, lagin moduan, eta kontserbazio egoera zehaztea; horrez gain, adierazle kuantitatiboak egokiak diren ala ez baloratzea.</p>
2.2 emaitza	Sasi eta bazkalekuen gaur egungo azalerari eta mozteko 20 hektarea zelairi eusteko moduko abeltzaintza karga mantentzea.
Neurriak	<p>26) Bazka antolatzeke plan bat egitea, eduki hauekin (gutxienez): bazka moten kalitatea eta produktibitatea, azienda karga egokia, bazkatzeke gutxiengaur egunak eta zonifikazioa, kontrolatuta erretzeke eremuak barne.</p> <p>27) LGIPEko neurriek BBEan duten eragina eta eraginkortasuna aztertzea, «mendiko bazkalekuen aprobetxamendua gestioatzeko» eta «artzaintza sustatzeko». Horretarako, biodibertsitatea neurtzeke adierazleak erabiliko dira eta, behar izanez gero, adierazle horiek hobeto aplikatzeko aholkuak emango dira.</p> <p>28) Aholku horiei jarraiki, abeltzaintza estentsiboa babesteko nekazaritza eta ingurumen kontratuak sinatuko dira, gutxienez onuradun potentzialen % 50 edo zaintzeke bazkaleku erdinaturalen % 75 hartu arte. Kontratu horietan, betiere, nekazaritza eta abeltzaintza ustategien ingurumen aldagaia modu egokian hartu behar da aintzat.</p> <p>29) Gutxienez, mozteko 20 hektarea zelairerantzoko ingurumen kontratuak sinatzea; kontratuetan honako hauek zehaztu behar dira: gutxiengaur eta gehienengaur uza kopuruak; urteko larratze kopurua; ongarrimota, kantitatea eta ongarritzearen aldizkakotasuna; eta berrereintza mota eta aldizkakotasuna.</p> <p>30) Izarraitzeke txilardi atlantikoak eta belardi menditarrak balio natural handiko eremutat hartzea, agiria abian jarri eta urte bete igaro baino lehen, abeltzaintza estentsiboa sustatzeko laguntzak errazago aplikatzeko, Landa Garapeneko Programen kargura, eta, ondorioz, abeltzaintza jarduera estentsiboari dagozkien ingurumen zerbitzuak ordaintzea.</p> <p>31) Xoxote inguruan bi aska eraikitzea, ganadua Azketa inguruan pilatu ez dadin eta lurra higatu ez dezan; eta, gero, Azketako urmaela hesitzea.</p>

Arauk	<p>32) Abeltzaintza gestionatzeko eremutat hartutako herri lurretan baso landaketak egitea debekatuta dago, salbu aziendari itzal egiteko direnak; azken horietan bertako espezieak erabili behar dira.</p> <p>33) Modu egokian justifikatutako arrazoiak egonez gero eta beste aukerarik egon ezean, larre hauen hedapenean eragina izan dezaketen edo oinarritzko elementu diren sastrakadien % 10 baino gehiago kaltetzen duten ekintzak baimenduko dira, baina, egindako kaltea konpentsatzeko, ahalik eta gertuen dauden eta kaltetua izan den zonaldearen funtzio ekologiko berdina beteko duen elementu berriak sortu edo berreskuratu beharko dira, kaltea edo eragina sortu aurretik, KBEaren barnean kantitate orokorra mantentzeko</p>
Jarraibideak	<p>34) Sastrakak kentzerakoan inguru irregularrak utzi behar dira eta mosaiko banaketari eutsi behar zaio; betiere, makina arinak erabili behar dira, lurra ez trinkotzeko.</p>

3.- IBAI-KARRAMARROA (*Austropotamobius pallipes*)

Kontserbazio egoera

Habitaten Zuzentarauaren II. Eranskinera batuta eta Estatuko Errege Dekretuan katalogatuta dago. EAEko ibai sarean, gainbehera dator gogotsu, banaketaren eta populazioen inguruko datu zehatzik ez dagoen arren.

Izarraitzean ez dago ibai-karramarro autoktonoa (*Austropotamobius pallipes*) lehen Goltzibar errekan bizi zen, espezie horietarako habitat egokiak baititu. Inork ez daki zergatik desagertu den.

BBEtik gertuko erreketako tarte txiki isolatuetan bizi da; beraz, ezin da populazio horien bitartez BBEn modu naturalean berriz kolonizatu.

Karramarroa BBEn berriz sartuta ere, espeziea ez desagertzeko gestio iraunkorra behar da eta, finantza baliabideak eskasak direnez, nekez iraungo luke.

***Austropotamobius pallipes*: Txarra-kaltegarria**

Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Txarra-kaltegarria	Txarra-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria

Baldintzak

Procamburus clarkii (karramarro gorria) eta *Pacifastacus leniusculus* (karramarro seinaleduna) espezie aloktonoek izurria (*Afanomycosis*) kutsatzen dute eta karramarro autoktono guztiak hil egiten dira. Goltzibar errekan, ordea, ez dago karramarro aloktonorik eta, beraz, bertakoa sartzea errazagoa izan daiteke.

Bertako karramarroak ur-laster txiki eta karedunak eta erriberako zuhaitzen multzo, ezponda, makrofito eta sustraietako babeslekuak ditu gustuko. Horregatik, Goltzibar erreka ondoan erriberako baso gutxi dagoenez eta daudenak zatituta daudenez, espeziearentzako habitataren kalitatea ez da hain ona.

Zabaltxo inguruan (Goltzibar erreka erdialdean) haltzadiaren ordeztzat platano sail bat dago (*Platanus hybrida*). Inguru hori, lurraren ezaugarriak direla eta (laua da eta putzuak eta ur-emari motelak daude), nahiko handia eta egokia izan daiteke espeziearen habitata lehengoratzeko.

Sedimentuak, lokatza eta ur arrea ez dira egokiak espeziea hazteko, ur garbi eta hotza behar baitu. Alde horretatik, azken urteetan basozaintza jarduerak eten egin dituzte eta, beraz, erreka ura ona da.

Bost presa txikiak eten egiten dute erreka emaria eta kaltetu egiten dute habitat horiek faunarentzako duten funtzionaltasuna. Errekaren goi-ibarrean bi aldiz eteten da emaria eta hori erregimen hidrologikoa aldatzen ari da, beharbada; dena den, ez dago karramarroaren gaineko azterlan espezifikorik.

Mendi-bide eta errepideek (Goltzibar erreka parean doazenek, adibidez) eta sail aloktonoek (erreka goi-ibarreko Txalonga ingurukoek, esaterako) erriberako basoa zatitu egin dute eta, orain, landare aloktonoen zerrenda estu bat besterik ez dago.

Goltzibar errekan arrantza egiten dute eta horrek espezie europarrari kalte egin diezaioke: izurria arrantzarako lanabesen bitartez kutsatu daiteke, lanabesak karramarro exotikoak ukitu badituzte eta ondoak kutsatutako uretan egon badira.

Karramarro autoktonoaren beste mehatxu bat jatorrizkoak ez diren harraparien hedapena da, bisoi amerikarrena, adibidez. Ez dakigu bisoi mota hori BBEko errekan badagoen ala ez, baina BBEko 10 x 10 WN58 UTM koadroan ikusi da (BRAVO, C. 2007).

Helburu eta neurriak	
3. Helburua	BBEan bertako ibai-karramarroaren (<i>Austropotamobius pallipes</i>) populazio egonkor eta bideragarri bat finkatzea.
3.1 emaitza	Goltzibar errekan bertako ibai-karramarroaren populazio egonkor bat finkatzea.
Neurriak	<p>35) Traslokazioak eta sartutako populazioen segimendua egitea, urtean behin. Traslokazioak egin aurretik, hala badagokio, erreka hobetzea: presak kentzea eta ertzak lehengoratzea, adibidez.</p> <p>36) Aldizka kontrolak egitea, bisoi amerikarrik eta karramarro gorri edo seinale-dunik badagoen ikusteko, eta bisoi amerikarra antzeman ahala handik ateratzea.</p> <p>37) BBEan isileko ehiza gehiago kontrolatzea, batik bat udaran.</p>
Jarraibideak	38) Arrantza egitea debekatuta egongo da BBEko ur-laster guztietan.
3.2 emaitza	Erriberako basoen 2,3 hektarea eta haiei lotutako hezeguneak berreskuratzea.
Neurriak	<p>39) Lehengoratze Ekologikoko Zonei dagozkien ibai zatien % 30ean flora exotikoa deuseztatzeko eta haltzadiak eta hezeguneak berreskuratzeko proiektuak idaztea eta gauzatzea eta, lan horretan, Goltzibar erreka Zabalxoko zatiari lehentasuna ematea.</p> <p>40) Borondatezko kontserbazio akordioak eta ingurumen kontratuak sustatzea, emari etengabea duten ibai-ibilguen inguruan (Sastarrainen eta Goltzibarren, adibidez) 10 metroko lur zerrenda landu gabe edukitzeko; eta zerrenda horretako sailetan, oinak kenduz, haltzadiak berreskuratzeko neurriak hartzea.</p> <p>41) Erreken eragozpen fisiko guztiak (presak eta ur-eteteak) iragazkortzea eta inpaktu gehien dutenei lehentasuna ematea.</p> <p>42) Bertako ibai-karramarroaren gutxieneko premien gaineko azterlan bat egitea eta behar duen gutxieneko emari ekologikoa kalkulatzeko eta kontrolatzeko.</p>

Arauk	<p>43) Zorrotz Babesteko Zonen gutxieneko gestio betekizunetako bat izango da landaretza naturaleko 15 metroko zerrenda bat egotea, baldin eta ez bada eremu jakin baterako beste zabalera bat espresuki zehazten, ibilguaren eta erriberaren ezaugarri morfologikoen arabera. Zerrenda horretan ezin da nekazaritza eta basogintza jarduerarik gauzatu, ezta erriberako basoak eta landareak mantentzea edo lehengoratzea eragozten duen inolako jarduerarik ere.</p> <p>44) Ezin da erriberako landaretza autoktono guztia edo parte bat eta erribera inguruko zuhaitz handi edo interes ekologikokoak kentzeko jarduerarik egin, salbu segurtasuna bermatzekoak edo habitata hobetzekoak; jarduera horiek, betiere, behar bezala arazoitu behar dira.</p>
--------------	--

4.- KIROPTEROAK

Kontserbazio egoera

Izarraitzeko BBEa 10 x 10 WN58 koadroan dago ia oso-osorik, eta egiaztatu da koadro horretan EAEko 21 espezieetatik 10 bizi direla. Hala ere, ez dago populazioen, banaketaren eta kumeak hazteko eta hibernatzeko lekuen gaineko datu kuantitatiborik. Espezie horietatik lau BBE barruan aurkitu dira: *Myotis emarginatus*, *Plecotus auritus*, *Plecotus austriacus* eta *Rhinolopus ferrumequinum*.

Dauden habitatak eta espezieen premia ekologikoak ikusita, Izarraitzen baldintza egokiak daude bai nagusi harpetarrak diren kiropteroentzat, bai basoko kiropteroentzat. Alde horretatik, BBEko leku batzuetan (Gaztelu, Goltzibar, Elortza eta Azketa inguruan) baso autoktonoetako zuhaitz motz eta zaharren dentsitatea nahiko handia da. Gainera, hainbat borda eta baserri zahar daude utzita eta, nahiz eta ez ditugun aztertu, kiropteroen babesleku izan daitezke.

Gainera, basoko sailetan jarduerak behera egin du, basoak pixkanaka heldu egin dira eta dauden zulo eta leizeak gutxi erabiltzen dira (Ekain salbu), eta hori guztia ona da kiropteroentzat. Ekaineko leizean saguzarrek ezin dute sartu, sarreran itxitura bat dagoelako. Azterketa gehiago eginez gero, ikusiko litzateke, agian, orain arte egiaztatu baino kiroptero gehiago daudela.

Kiropteroak Ezezaguna

Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Ona-aldekoa	Ona-aldekoa

Baldintzak

Ez dakigu zehatz-mehatz zer espezie dauden eta ez daukagu populazioen tamainari buruzko datu kuantitatiborik.

Basoko saguzarren babeslekuak hildako zuhaitzen eta zuhaitz motz edo helduen zulo eta arrailak dira. Zuhaitz motzak, ordea, hamarkadak daramatzate zaindu gabe eta, ondorioz, adarrak gehiegi hazi zaizkie, egitura desorekatua dute eta desagertzeko arriskuan daude.

Zulo falta babes-kutxak jarriz konpondu daiteke, aldi baterako, zuhaitzek denbora asko behar baitute zahartzeko.

Hostogalkorren basoak ordezkatu dituzten konifera sailak sistema sinple, homogeen eta adinkideak dira, harrapakin gutxi daude eta zulorik ia ez dago; horregatik, basoko kiropteroentzako habitat txarrak dira.

Espezie batzuk ura dute gustuko, batik bat putzuak eta erreka eta ibaien ur-laster motelak. Zenbat eta erriberako landare gehiago, orduan eta kiroptero espezie gehiago egoten dira. BBEan, ordea, erriberako landaretza oso sinplifikatuta edo desagertuta dago.

Kiropteroen habitatetatik gertuko baso sailetan izurriak kontrolatzeko produktu toxiko ez espezifikoak erabiliz gero, harrapakinen dibertsitateak behera egiten du. Baserri eta eraikin zaharretako egurra tratatzeko erabiltzen diren produktu batzuk ere (organokloratuek) eragin bera dute eta, ondorioz, azken urteetan ferra-saguzar handien (*Rhinolophus ferrumequinum*) hainbat kolonia desagertu egin dira Euskal Herrian (DÍEZ, J. eta ELOSEGI, A., 2000). Gai toxiko horiek erabiltzea arriskutsua bada ere, gaur egun ez dakigu Izarraitzen zenbateraino erabiltzen diren.

Umeak hazten edo hibernatzen ari direnean bisitak egitea arriskutsua da, kiropteroek babeslekuetik alde egitea erabaki dezaketelako. Alde horretatik, ez da aztertu leize eta zuloetako turismo eta kirol jarduerak kiropteroengan eta beste troglobio espezieengan zer eragin duten.

Gainera, basozaintza intentsiboak eta lurrazalean produktu kimikoak (intsektizidak, ongarriak, e.a.) erabiltzeak eragina izan dezake lurpeko uren kalitatean eta fauna ornogabeen. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Ekaingo muinoko lurak erosi zituen, 1 leizea eta leizeko labar pinturak babesteko; muino horretan konifero exotikoak landatu direlako. BBEko azaleraren parte handi batean sailak daude eta ez da aztertu ustiaketa metodoek zer eragin duten leizeetan.

Ezjakintasuna dela eta, saguzarrek, oro har, ospe txarra dute. Ordea, gizakientzat onuragarriak dira, zeharka, intsektuen izurriak kontrolatzen dituztelako, adibidez.

Karbonatoetako sistema karstikoen balio handia dute biodibertsitate aldetik eta, gainera, 42/2007 Legeko VIII. eranskinaren arabera, «Espainiako unitate geologiko adierazgarriak» eta «munduan garrantzi handia duten ingurune geologikoak» dira.

Helburu eta neurriak	
4. Helburua	Mehatxatutako kiropteroen populazioei eustea, haien ehiza eremuetan esku hartuz eta udako eta hibernatzeko babesleku gehiago jarritz.
4.1 emaitza	BBEko kiroptero espezieen populazioen banaketa eta egoera zertan diren jakitea.
Neurriak	<p>45) Azterlan bat egitea, BBEan zer kiroptero espezie dauden ikusteko, babeslekuak identifikatzeko, habitataren erabilera zehazteko (espezieen arabera) eta banaketa kartografiatzeko.</p> <p>46) Kiropteroen ziklo biologikorako garrantzitsuak diren eremu guztiak, batik bat 25 metro luze edo 20 metro sakon baino gehiago diren zuloak, balio ekologiko handiko elementu natural eta kulturalen inbentario irekian sartzea eta Zorrotz Babesteko Zona izendatzea.</p>
4.2 emaitza	KBEko kiropteroen habitat egokia ziurtatzen da.
Neurriak	<p>Aplikatuko dira baso helduak gestionatzeko eta bazkalekuei, larreei eta sasien mosaikoari eusteko proposatutako neurri guztiak.</p> <p>Baita bertako ibai-karramarroaren atalean erriberako landaretza eta hezeguneak berreskuratzeko proposatutako neurriak ere.</p>

	<p>47) Katalogatutako zazpi leizeetako ekosistemetan turismo, kirol eta basozaintza jarduerak zer eragin duten ikusteko azterlan bat egitea eta, ateratako ondorioen arabera, erabilera horiek arautzea.</p> <p>48) Baso gazte eta zulo naturalik gabekoetan babes-kutxak jartzea eta, gainera, kutxa horiek aldizkako kontrolak egiteko baliatzea.</p> <p>49) EAEko espeleologia elkarteekin lankidetzan hitzarmen bat sinatzea eta elkarreko kideak prestatzea «biodibertsitate aldetik balio handia duten zuloak zaintzeko alerta goiztiarreko sistema» bat garatzeko eta ezartzeko.</p> <p>50) Alerta sistemaren bitartez ikusten bada zuloetan kiropteroak edo beste balio natural batzuk daudela, edo aldaketaren bat gertatu dela (aurrez ezarritako parametroen arabera), adituek zuloak aztertu, boluntario sareak emandako datuak ebaluatu eta kasu bakoitzerako gestio neurri egokiak ezarriko dituzte.</p>
Arauk	<p>51) Debekatuta egongo da basotik, haltzadietatik, heskaietatik eta trantsizio landaretza naturaletik 10 metro baino gutxiagora pestizida ez espezifikoko erabiltzea.</p>
Jarraibideak	<p>52) Baimendutako lurpeko bisitetan aholku hauek bete behar dira: lurpean ezer ez uztea, azetilen lanparak ez erabiltzea, eginkaririk ez uztea, elikagairik ez jatea eta arropa eta tresna garbiak erabiltzea.</p> <p>53) Horretarako, kiropteroetan aditua den norbaiti aholkularitza eskatuko zaio, itxitura egokiena aukeratzeko.</p> <p>54) BBEko edo inguruetako eraikinetan birgaitzeak edo obrak egin aurretik, ikusi beharko litzateke saguzar koloniarik badagoen ala ez. Koloniaren bat aurkituz gero, egurra tratatuko da espezie horiek kalteku produktu kimikoak erabili gabe.</p>
4.3 emaitza	Kiropteroek garrantzi handia dutela jakinaraztea.
Neurriak	<p>55) Tokiko jendearentzako eta administrazioetako landa-langileentzako sentsibilizazio kanpaina berezi bat diseinatzea, jakinarazteko kiropteroek garrantzi handia dutela, baserrietan edo bestelako eraikinetako egiten diren obrek saguzarrei kalteak eragin diezazkieketela eta zuhaitz hil edo seneszentek eta haiei lotutako organismoak garrantzizkoak direla.</p>

5.- KONEKTIBITATEA

Kontserbazio egoera

Izarraitzeko BBEa 1.500 hektarea baino gehixeagoko mendigune kareduna da eta esku hartutako lurralde matrize baten barruan dago. Ereku txikia da, kanpoan uzten dituelako behealdeko larre haltzadidunak.

Gipuzkoako eremu babestuak txikiak dira, ekosistemetako prozesu eta zerbitzuen zaintzan oinarritutako gestioa hartzen badugu aintzat. Espazio babestu horietan eremu muinotar eta menditarrak daude eta, oro har, kanpoan uzten dira behealdeko zelaiak, haltzadidunak, harizti handiak egonkortutako eremuak.

Ez dago konektibitatearen gaineko azterlanik, baina litekeena da Izarraitz eta Arno lotuta egotea⁴, Mendaro, Lasturko bailara, Kilimoierreka eta Sasiola inguruan hasten den artadi zubiaren bitartez.

Alde horretatik, azpiegitura hauek oztopo handiak jartzen dituzte: N-634 errepidea eta A-8 autopista (Donostia-Bilbo ardatzean zirkulazio handia dago), GI-3230 errepidea, trenbidea eta martxan dagoen harrobi bat.

Heskai kopurua pixkanaka behera egiten ari da. Duquesa harrobiak sedimentuak uzten ditu Araneta errekan, eta erreka horretan ibai-karramarro autoktonoak daude.

Baldintzak

Arno eta Izarraitzen arteko basoak eta sistema estentsiboak ez daude basoko faunarentzako iragazkortsuna ziurtatzen duten erabilerak bermatzeko babestuta.

EAErako korridore ekologikoen proposamen tekniko bat dago, paisaiaren eskalan egina. Baina ez dago korridore horretako faunaren erabilerari buruzko datu espezifikorik, ez dira oztopo gehien eragiten duten guneak identifikatu eta ez da konponbiderik planteatu.

Helburu eta neurriak

5. Helburua	Izarraitzen eta Arno, Pagoeta eta Ernio-Gatzumeren arteko lotura bermatzea.
5.1 emaitza	Izarraitzen eta Arno, Pagoeta eta Ernio-Gatzumeren arteko korridoreak zehaztea, 1:5.000 eskalan.
Neurriak	<p>56) Ornodunen joan-etorrien fluxuak eta puntu beltzak aztertzea Izarraitz, Arno, Pagoeta eta Ernio-Gatzume artean.</p> <p>57) Izarraitz, Arno, Pagoeta eta Ernio-Gatzume arteko korridoreak berriz mugatzea, egoki dimentsionatzea eta zehatz-mehatz karakterizatzea, eta erabileren antolamendua eta gestio jarraibideak proposatzea. Prozesua hasitakoan, eta irauten duen bitartean, eragindakoei erabileren eta gestio jarraibideen berri emango zaie, informazio bileren bitartez. Aurreikusitako bileren egutegia egingo da, informazioa ahalik eta biztanle gehieni emateko.</p> <p>58) Debako komunikazio ardatzeko azpiegiturak iragazkortzea, hala badagokie.</p> <p>Heskaiak eta gainerako lotura egiturak zaintzeko neurri, jarraibide eta arauak aplikatzea.</p>
Arauak	59) Izarraitz, Arno, Pagoeta eta Ernio-Gatzume arteko korridoreak «baldintza-tzaile gainjarri»tzat hartuko dira eta ingurumen eta lurralde plangintzan kontuan hartuko dira, baita ingurumena ebaluatzeko prozeduretan ere.

BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN HABITAT NATURALAK, FLORA ETA FAUNA

Habitatak	Kontserbazio egoera	Aldeko neurriak
Artadi kantauriarra (9340)	Txarra-kaltegarria	Basoen naturaltasuna hobetzeko neurriak.
Harkaizti basikoetako landaredia (8210)	Ona-aldekoa	
Leize kontinentalak (8310)	Ona-aldekoa	46, 47, 49, 50, 51, 52
Espezieak	Kontserbazio egoera	Aldeko neurriak
<i>Narcissus, pseudonarcissus</i> taldea	Ona-aldekoa	26, 27
Gorostia (<i>Ilex aquifolium</i>)	Ona-aldekoa	9
Hagina (<i>Taxus baccata</i>)	Desegokia-kaltegarria	9
Azeri-mahatsa (<i>Paris quadrifolia</i>)	Ezezaguna	9
Quimper barraskiloa (<i>Elona quimperiana</i>)	Desegokia-kaltegarria	2, 46, 47, 49, 50, 51, 52
Aingira (<i>Anguilla anguilla</i>)	Desegokia-kaltegarria	38, 40, 41, 42
Ibai-amuarraina (<i>Salmo trutta m. fario</i>)	Desegokia-kaltegarria	38, 40, 41, 42, 51
Uhandre marmolairea (<i>Triturus marmoratus</i>)	Desegokia-kaltegarria	31
Txantxikua (<i>Alytes obstetricans</i>)	Desegokia-kaltegarria	31, 39, 40, 43, 44
Horma-sugandila (<i>Podarcis muralis</i>)	Ona-aldekoa	33, 34, 54, 55
Hegoaldeko suge leuna (<i>Coronella girondica</i>)	Ezezaguna	33, 34
Eskulapioren sugea (<i>Zamenis longissimus</i>)	Ezezaguna	2, 39, 40, 43, 44
Zirauna (<i>Anguis fragilis</i>)	Desegokia-kaltegarria	33, 34
Schreiber muskerra (<i>Lacerta schreiberi</i>)	Ezezaguna	33, 34, 42, 43, 51
Azorea (<i>Accipiter gentilis</i>)	Ezezaguna	2, 5, 10
Zata arrunta (<i>Caprimulgus europaeus</i>)	Desegokia-kaltegarria	2, 5, 10
Ur zozoa (<i>Cinclus cinclus</i>)	Desegokia-kaltegarria	42, 43, 44, 51
Arrano sugezalea (<i>Circaetus gallicus</i>)	Desegokia-kaltegarria	26
Mirotz zuria (<i>Circus cyaneus</i>)	Desegokia-kaltegarria	26
Belatz handia (<i>Falco peregrinus</i>)	Ona-aldekoa	26
Sai arrea (<i>Gyps fulvus</i>)	Ona-aldekoa	26
Antzandobia (<i>Lanius collurio</i>)	Desegokia-kaltegarria	10, 26
Miru beltza (<i>Milvus migrans</i>)	Desegokia-kaltegarria	2, 5, 10, 26
Harkaitz-zozo gorria (<i>Monticola saxatilis</i>)	Ezezaguna	26

Sai zuria (<i>Neophron percnocterus</i>)	Ona-aldekoa	26
Zapelatz liztorjalea (<i>Pernis apivorus</i>)	Ezezaguna	2, 5, 10
Mendi-tuntuna (<i>Prunella collaris</i>)	Ezezaguna	26
Belatxinga mokogorria (<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>)	Ezezaguna	26
Etze txinboa (<i>Sylvia undata</i>)	Ezezaguna	10, 26
Gato montés (<i>Felis silvestris</i>)	Ezezaguna	2, 20
Bisoi europarra (<i>Mustela lutreola</i>)	Txarra-kaltegarria	36, 37, 38, 41, 42, 51
Muxar grisa (<i>Glis glis</i>)	Desegokia-kaltegarria	2, 20

Babes bereziko espezie eta habitaten galera edo kaltea ekiditeko:

1. Cualquier actividad que pueda suponer afecciones apreciables sobre su estado de conservación deberá someterse al procedimiento de adecuada evaluación, en los términos establecidos en la Ley 42/2007, del Patrimonio Natural y la Biodiversidad y demás legislación aplicable.
2. Kontserbazio egoeran eragin dezakeen edozein ekintzak ingurumen ebaluazioa jasoko du. Kontserbazio egoera onean mantentzeko edo egoera horretara iristeko, aurretik gaur egungo egoera definitu beharko da, eta hau ezinezkoa den kasuetan, estimazio kualitatibo fidagarrien bitartez egin beharko da.
3. Ondoren, aldizka ebaluatu beharko da prozedura estandarizatuen bitartez. Horrela, EAEko Natura 2000 Sareko beste tokietako emaitzekin konparatu ahal izango da, orokorrean sare osoaren kontserbazio egoera estimatu ahal izateko. Prozedura hauek planaren jarraipen planean barneratuko dira eta espezie edo habitat bakoitzarentzat, talde taxonomikoentzat edo beste taxoi elkarketentzat egin ahal izango dira, beti ere espezie bakoitzaren bakarkako ebaluaketa ahalbidetzen bada.
4. Babes bereziko erregimeneko habitat edo espezie baten egoera txarra bada, funtsezko elementu edo gestio objektutzat hartuko da. Ondorioz, behar diren kontserbazio neurriak hartuko dira, berehala, salbu neurri horiek planean beste funtsezko elementu batentzako aurreikusita badaude; aurreikusita egonez gero, neurriak aurreko ataleko taulan zehaztuko dira.

KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

1.- BIODIBERTSITATEARI BURUZKO JAKINTZA ETA INFORMAZIOA

Baldintzak
<p>Habitat eta espezieei buruzko nahikoa informazio ez izateak kontserbaziorako politika aktiboen plangintza eta inpaktuen ebaluazio egokia baldintzatu egiten du eta ondorioz, prebentzioa zailtzen du.</p> <p>Kasu askotan ezinezkoa da datu kuantitatiboen bidez espezieen kontserbazio egoera zehaztea. Leku hau Natura 2000 Sarean barneratzea eragin duten espezie eta habitat natural bakoitzaren egungo eta aldeko egoeraren definizioa, biodibertsitateari buruz dugun ezagutza hobetzeko aukera eta kudeaketa antolatze behar bat izateaz gain, legezko eginkizun bat ere bada eta EAE, estatu eta Europa mailan egoeraren ebaluazioak egin ahal izateko informazio estandarizatu hedatzeko prozedura arinak erabiltzera behartzen du.</p> <p>Aipamen batzuk ez dira fidagarriak eta beste batzuk UTM 10x10 edo 1x1 km-ko koadroetan daude; kirop-tero batzuenak eta <i>Paris quadrifolia</i> landare mehatxatuarenak, adibidez. Horregatik, ezin izan dugu kokapena zehaztu eta, beraz, gestio neurriak proposatzea zaila da.</p>

Informazioa badagoen kasuetan ere, honen kalitatea ez da ona, eta zaharkitua dago, eta populazioen joera eta dinamikak ebaluatu ahal izateko ez dago serie historikorik. Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2001. urtetik, gaueko trantsektuak egiten ditu, behatutako fauna espezieak (gehienak ugaztunak) eta haien habitata erregistratzeko. Baina datu horiek ere ez dira nahikoa populazioak eta joerak baloratzeko.

Kiropteroen gaineko informazioa, adibidez, hain da eskasa zaila dela gestio neurrien behar bezalako proposamena egitea. Horregatik, elementu askorentzat ezartzen den lehenengo neurria, kontserbazio egoera definitzea izango da.

EAEko landaretza mapa (EUNIS, 1:10.000) nahiko zehatza da habitat natural gehientzat; ez, ordea, habitat natural txikiarentzat eta Izarraitzen babestu behar diren espezie askoren ziklo biologikorako garrantzitsuak diren mikrohabitatakat osatzen dituzten elementu natural eta kulturalentzat. Gainera, ez dago mapa hori eguneratzeko modurik, eta beraz, urte gutxitan kudeaketa tresna baliogabe bilakatu da, lurraldeak duen eraldaketa natural eta antropikoen dinamikagatik.

Egun, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Euskadiko Biodibertsitatearen Informazio Sistemak Autonomia erkidego mailan egindako Pagoetari buruzko proiektu, inbentario etab-en bidez jasotako dibertsitate ekologikoari buruzko datu ugari dituen arren, oraindik ere oso barreiatutako informazioa eta kudeatzaileentzat irismen zaila den informazioa badago.

Halaber, ez dago Izarraitzeko biodibertsitatearen erabateko balorazio ekonomikorik, merkatuan balioa daukaten produktu batzuen finantza balioaz aparte. Bertako ekosistemek sortzen dituzten ingurumen zerbitzuak eta biodibertsitate eratorritako onurak ez dira kuantifikatuak izan. Biodibertsitatearen eragina izan dezaketen ekintzei buruzko erabakiak hartzerako orduan biodibertsitatea kontuan har dadin eta gizarteak, biodibertsitatearen galerak gure ongizate mailan eta gure ekoizpen sistemaren babesean duen eragin zuzena uler dezan, balorazio hauek ezinbestekoak dira.

Faunaren hilkortasun ez naturalen eta honen arrazoiei buruzko erregistro estatistikorik ez dago, hala nola, harrapaketak, elektrizitate kableak, pozoia eta furtibismoa. Honek, prebentzio neurri egokien ezarpena eta korridore ekologiko eraginkorren diseinua zailtzen ditu.

Azkenik, ez dago BBEan zaindu behar diren basoko fauna populazioengan eta interes komunitarioko habitategan ehizak izan dezakeen eraginari buruzko kalitatezko informaziorik. Hortaz, zaila da ehizaren gaineko neurri, arau eta jarraibideak ezartzea.

Helburu eta neurriak	
6. Helburua	Izarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta biodibertsitatea galtzea edo kaltetzea eragin dezaketen arrazoiak ezagutzea, biodibertsitateari epe luzera eustea bermatzeko neurriak diseinatze aldera.
6.1 emaitza	Kontserbazio egoera hobetzeko interesgarriak diren habitat guztien eta Izarraitzeko dibertsitate biologikorako eta osotasun ekologikorako garrantzitsuak diren leku edo elementu natural edo kultural guztien kartografia eguneratua edukitzea.
Neurriak	<p>60) Adituek egindako behaketa berrietatik eratorritako informazioaren bidez EUNIS Habitaten mapa eguneratzeko protokoloa definitu. Honakoak izan beharko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Gizakiaren esku-hartzea edo eboluzio naturalaren ondorioz gertatutako aldaketak. ○ Lan eskalaren ondorioz inbentarioan barneratu gabe geratutako kokapen murriztuak dituzten habitatei buruzko informazioaren hobekuntzak.

	<p>61) Basa fauna eta florarentzat interesekoak diren elementu kultural, natural eta geomorfologikoen georreferentziatutako inbentario irekia eratu. Inbentario horretan sartuko dira azalera aldetik txikiak direlako, edo beste arrazoiren batengatik, habitaten EUNIS mapan kartografiatuta ez dauden mikrohabitat guztiak. Beste elementu batzuk ere sartuko dira, esaterako: basoko flora populazioak, faunarentzat interesgarriak diren zuhaitz unadak eta isolatutako zuhaitzak, urmaelak, putzuak, aldian-aldian urez betetzen diren lurrak, soilgu-neak, ekotonoak, trantsizio habitatak, heskaiak, hormatxoak, leizeak eta Izarraitzeko basoko faunarentzat eta osotasun ekologikoarentzat garrantzitsuak diren gainerako elementuak (babeslekuak, elikatzeo eta umeak hazteko tokiak, joan-etorrietako lekuak...). Inbentarioak, barneratutako elementuak karakterizatu beharko ditu edo gutxienez, barneratuak izatearen arrazoiak adierazi beharko ditu.</p>
Arauak	<p>62) Elementu bat «Basa fauna eta landareztarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario georreferentziatu irekian» barneratzeak, elementu hau dagoen eremua «Babes bereziko eremu» izendatzea suposatuko du eta eragina izan dezaketen ekintzei buruzko ikerketak egin beharko dira eta beharrezkoa izanez gero, konpentsazio neurri egokiak ezarri beharko dira.</p> <p>63) Modu egokian justifikatua egongo balitz eta beste aukerarik egon ezean, elementuen galera edo narriadura sortuko lukeen ekintzaren bat baimenduko balitz, kaltea konpontzeko, elementutik ahalik eta gertuen honen baldintza eta funtzio ekologiko berdinak beteko dituzten elementuak ezarri beharko dira kaltea egin aurretik. Modu honetan KBEeko aktibo naturalaren kopuru osoa mantenduz.</p>
6.2 emaitza	Babes bereziko erregimeneko basa espezie eta desagertzeko arriskuan dauden habitat guztien kontserbazio egoera ezagutzen da.
Neurriak	<p>64) Babes bereziko erregimenean dauden habitat eta basoko espezie guztien kontserbazio egoerari buruzko fitxak egitea, informazioa erraz erabiltzeko eta, era horretan, informazio estandarizatua transmititzeko betekizunak betetzeko, Habitaten Zuzentarauko 17. artikuluari jarraiki.</p>
6.3 emaitza	Izarraitzeko dibertsitate biologikoaren eta bertako ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomiko guztia zenbatzea.
Neurriak	<p>65) Izarraitzek eskaintzen dituen ondasunak zenbatetzeko azterlan bat egitea, kontuan hartuta biodibertsitatearen eta ingurumen zerbitzuen balio ekonomiko guztia. Ikerketa hau zehazki lekuarentzat egin daiteke edo emaitzen transferentzia ahalbidetuko luketen metodologiak erabiliz eskala handiagoan egindako ikerketen barne.</p> <p>66) Aurreko ikerketaren emaitzak bertako komunitateetan zabaltzeko eta interesa duten guztien esku jarri, horrela, erabakiak hartzeko orduan eta eragina izan dezaketen ebaluazio estrategiko edo inpaktu ebaluazioetan kontuan har daitezkeen.</p>

6.4 emaitza	Fauna basatiaren hilkortasun ez naturaleko puntu beltzen mapa egitea, BBEan eta inguruan.
Neurriak	<p>67) Izarraitzeko BBetik eta ingurutik Fauna Basatia Berreskuratzeko Igeldo Mendiko Zentrora eramandako espezie basatien erregistro informatikoa egitea. Honako datuak sartuko dira: zauria edo lesioa, arrazoia eta jasotako puntuaren koordenada geografikoak. Pozoitze kasuetan, analisi toxikologiko zorrotzak egingo dira zigor ekimen eta ekimen administratiboetan baliagarriak izan daitezzen.</p> <p>68) Jasotako informazioarekin puntu beltzak adieraziko dituen mapa osatuko da, bertan honakoak jasoko dira: elektrizitate hariteria eta aerosorgailuen aurkako talkak, elektrokuzioaren ondoriozko heriotzak, tiroak, pozoitzeak, harrapatzeak eta heriotza ez naturala eragiten duen beste edozein arrazoi. Hiru urtero mapa hori eguneratuko da, eta plan honetan eta ondorengoetan barneratzeko neurri zuzentzaileak proposatuko dira.</p> <p>69) Planaren lehenbiziko bi urteetan Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoa egitea. Planaren edukia hau izango da, gutxienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espezie zinegetikoen kontserbazio egoera, batik bat oilagorrena. - Erreserba eremuak. - Kontserbazio helburuekiko bateragarritasuna eta babes bereziko erregimenean dauden espezieei eragin zuzenak, arriskuak edo eragozpenak ez sortzeko neurriak. - Olgetarako erabilerekiko bateragarritasuna eta BBera ehizara joaten ez direnei arriskuak eta eragozpenak ez sortzeko neurriak. Horretarako, ehiza eremuak mugatuko dira, ehiza egutegia egokituko da eta segurtasun eremuak zainduko dira. - Kartutxoak kentzea kontrolatzea, berunarekin intoxikatzeko arriskuak ebaluatzea eta arrisku horien segimendua egiteko programa bat martxan jartzea. - Zaintza eta kontrol programa bat egitea. <p>70) Abeltzain, baso ustiapenetako jabe, mendi elkarte, ehiztari eta inguruan ibiltzen diren beste kolektiboetako kideei mapa egingo dela jakinaraziko zaie, beraiek ikusitakoak eskudun administrazioko langileei adierazteko.</p> <p>71) Naturaren Babeserako Komisio Nazionalak onartutako «Pozoidura Kasuetarako Ekintzen Protokoloa» ezarri eta perituen probak egiteko aholkuak jasotzen dituen txosten tekniko bat prestatu.</p> <p>72) Basa faunaren heriotza ez naturalen urteroko informea egin, hartutako neurri prebentiboak eta hauen emaitzak adieraziz, eta informe hau interesdun guztiengana iristea ziurtatu.</p>
Jarraibideak	<p>73) Behin eta berriro pozoitutako amuzkien erabilera antzematen bada «Ingurune Naturalean amuzki pozonduen erabileraren aurkako Estrategia Nazional»ean jasotako neurriak hartuko dira.</p>

2.- KOMUNIKAZIOA, HEZKUNTZA, PARTEHARTZEA ETA HIRITARREN KONTZIENTZIAZIOA

Baldintzak

Gobernantza egokiaren printzipioetan oinarrituz, hiritarrak informatu, entzun eta parte hartzeko eta administrazio publikoak bere kudeaketari buruzko azalpenak emateko organo eta prozedurak ezartzea beharrezkoa da.

Gestio plan hau idazteko prozesuan kontsulta egindako Izarraitzeko lurren jabe eta erabiltzaile gehienek ez zekiten Izarraitz Euskal Herriko Natura 2000 Sarean dagoela; eta ez zekiten, ezta ere, Sare hori zertan den, Sarean sartzeko arazoak eta ondorioak zein diren eta administrazioak zer gestio lan egiten duen leku horietako dibertsitate biologikoa zaintzeko. Ez zuten gainera, kontserbazioaren helburuak lortzeko dauden laguntzen berririk ere.

Azpeitia, Azkoitia, Zestoa eta Debako Udalak espazioaren alde daude, oro har, baina adierazi dute ez dakitela zer ondorio dauzkan Izarraitz Euskal Herriko Natura 2000 Sarean egoteak.

Izarraitzeko eremu babestuak ez dauka ingurumena interpretatzeko ekipamendu eta bitartekorik, baina Sastarrain baserri-eskola irekita egoten da ia urte osoan, eskola umeen bisitak jasotzeko, eta Ekainberri zentroan kontserbazioari buruzko gaiak sartzten dituzte egitarauan.

Helburu eta neurriak

7. Helburua	Herritarrek Izarraitzeko BBEan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea eta BBEa zaintzen laguntzea sustatzea.
7.1 emaitza	Herritarrei, aldian-aldian, Izarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazioa ematea; baita kontrako egoerak eragiten dituzten arazoiei, arazoi horien inguruko politika publikoei eta politika horien emaitzei buruzko informazioa ere.
Neurriak	<p>74) Ingurumen Saileko web orrian Izarraitzeko BBEaren gainean herritarrei ematen zaien informazio ulergarria eguneratzeko prozesuak hobetzea.</p> <p>75) Landaretza eta fauna kontserbatzeko neurriei buruzko komunikazio programa garatu eta neurri hauen eragina jasan dezaketen edo aktiboki inplikatu daitezkeen gizarteko sektoreei zuzendu.</p> <p>76) Lurren jabeen, nekazaritza ustiatzietako titularrei eta basozainei BBEko habitat naturalen eta espezie basatien kontserbazio egoera hobetzea erraztu dezaketen nekazaritza, ingurumen eta basoko neurrien berri emateko ekintzak antolatzea eta gauzatzea, eta ekintza horiek baliatzea jabeak, titularrak eta basozainak habitat eta espezie horien balio naturalaren garrantziaz jabetzeko.</p> <p>77) Ekainberri zentroan eta Sastarrain baserri-eskolan BBEari eta Natura 2000 Sareari buruzko komunikazio programa bat diseinatzea eta aurrera eramatea. Mezua helaraziko zaie, baita ere, ingurumen heziketarekin eta ingurune natural eta kulturalaren interpretazioarekin zerikusia duten BBEaren inguruko beste zentro batzuei, adibidez: Azpeitiko Ingurugiro Etxeari eta ostatuei (Lasurkoari, esaterako).</p>

	78) Hiritarrek KBEari eta bere helburuei buruz duten ezagutza maila, jarrera eta portaerak ikusteko aldizkako ebaluaketak egin, komunikazio, hezkuntza eta kontzientziatorako ekintzak birbideratu ahal izateko.
Jarraibideak	79) Izarraitzeko lan zientifiko eta teknikoetan, plan honetako helburuekin zerikusia badute eta baliabide publikoekin kontratatu eta finantzatzen badira, herritarrek erraz ulertzeko dibulgaziozko laburpen bat sartzea. 80) Laburpen horiek autonomiako ingurumen organoaren egoitza elektronikoaren bidez zabaldu behar dira eta, betiere, eskatzen duten interesdun guztiei bidaliko zaizkie.

3.- GOBERNANTZA

Baldintzak
<p>El Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco es responsable de la Red Natura 2000. Pero, en virtud de la Ley 27/1983, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos (LTH), la gestión corresponde al órgano foral competente del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dute lan talderik sortu espazio horretako jarduerak koordinatzeko.</p> <p>Babestutako eremua antolatzeko tresnak koherenteak izan behar dute, maila guztietan. Bestela, erakunde zereginak gainjartzea gerta daiteke eta, ondorioz, dauden giza eta finantza baliabide eskasak modu eraginkorren ez erabiltzea eta espazioaren gestioa kaltetu dezaketen kontraesanak sortzea.</p> <p>Europar Batasuneko komisiok eta kontseiluak ebatzi dutenez, Natura 2000 Sarearen kontserbazioa planeamendu sektorialeko eta garapen sozioekonomikoko tresna guztietan helburu bezala barneratu behar da. 42/2007 legeak adierazten duenez, botere publiko guztiek, dagokien esparruan, ondasun naturalaren kontserbazioan eragingo duten ekintzak eta ondorioz Natura 2000 sarea, bultzatuko dituzte. Elkarlan egokia sortzeko eta sektore anitzeko aliantzak sustatzeko zailtasun instituzionalen ondorioz, gerta daiteke planean proposatutako helburuak ezin lortzea.</p> <p>Plana ezingo da aplikatu egitura egoki bat sortzen ez bada. Egitura horrek gai izan behar du inplikaturako administrazio, erakunde eta agente sozialak dinamizatzeko, jardueren eta emaitzen segimendua egiteko, jarduera eta emaitza horien berri emateko, jarduera berriak proposatzeko eta, inplikaturako alderdi guztiei eta dagozkien adituei kontsulta egin ondoren, aurreikusitako helburuak lortzeko egin behar diren aldaketak aurrera eramateko.</p>

Helburu eta neurriak	
8. Helburua	Organo kompetente guztien koordinazio instituzionala hobetu eta Ingurumen araudia eta zatikako araudia egokitu, dokumentu honetako helburu, neurri, jarraibide eta arauekin bat etor dadin.
8.1 emaitza	Batzorde tekniko iraunkor bat sortzea, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Izarraitzeko jarduerak koordinatzeko.

Neurriak	81) Egungo kudeaketa planaren garapenean lankidetzan aritzeko Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lan talde egonkorra osatu. Jarraipen organo hori, KBE izendatu ondoren, gehienez urte beteko epean osatuko da.
8.2 Eraitza	Planaren aplikazioa errazteko ingurumen araudi eta zatikako araudi guztia egokitzen da.
Jarraibideak	82) Plan honen ezarpen eremuan eragina izan dezakeen edozein plan edo proiektu sektorialek, derrigorrezkoak diren neurri prebentibo eta minimizatzaileez gain, Pagoetako biodibertsitatean eragin positibo eta ebaluagarriak izango dituzten neurriak eta planaren helburuak lortzen lagunduko duten neurriak izan beharko ditu.

ZONIFIKAZIOA

Egungo egoeraren arabera eta egitea proposatzen den kudeaketaren arabera eremu ezberdinak definitzen dira. Kontserbazio egoera eta haren araberako gestioa denborarekin aldatu egin daitezke, arrazoi naturalengatik edo giza arrazoiengatik, eta, neurri batean, espero den moduan, gestioaren ondorioz. Adibidez, posible da beharrezko berriztapen neurriak ezarri ostean, berriztapen ekologikoko eremu bat babes zorrotzeko edo garapen naturaleko eremu izendatzea. Beraz, zonifikazioa denborarekin alda daiteke.

1.- GARAPEN NATURALEKO EREMUAK (GNE)

Balio ekologiko handiko zonak dira: osotasun ekologikorako funtsezkoak diren prozesu funtzionalak betetzen dituzte eta, horrez gain, habitat naturalak dauzkate edo ahalik eta esku-hartze gutxien behar duten espezie berezi edo oso mehatxatuen habitatak dira.

Zona horietan intentsitate gutxiko jarduerak planteatu daitezke, salbuespen gisa eta, betiere, eremuaren eta eremuari dagozkion espezieen bilakaera arintzeko (kontserbazio egoera hobetzeko) eta iraunkortasun eta osotasun ekologikoa arriskuan jartzen duten mehatxuak geldiarazteko. Zientzia eta heziketa jarduerak eta erabilera publikoko jarduerak ere planteatu daitezke, baldin eta osotasun ekologikoa kaltetzen ez badute. Ekintza horiek Natura 2000 Sarea-ren organo konpetenteak baimendu beharko ditu.

Plana onartu eta bi urteren buruan orain baso naturalei dagokien azaleraren % 20 mugatuko da, gutxienez; horretarako, ekologia aldetik onenak diren basoak aukeratuko dira. Bilakaera Naturaleko Zonek Izarraitzeko oraingo landaretzako eta landaretza potentzialeko baso mota eta azpimota guztien lagin adierazgarri bat eduki behar dute. Orobat, jabetza pribatuko basoak sar daitezke, jabeekin kontserbazio egoerari eusteko akordioak adostu ondoren; baita zuhaitzak natural berritzen ari diren sasiak ere, berreskuratzeko jarduerarik behar ez dutelako (adibidez: inbentariatutako elordi atlantiko karezaleak). Berritutako lur guztiak kategoria honetan sartuko dira, pixkanaka, gerora intentsitate handiko jarduerarik behar ez badute.

Intentsitate handiko ekintzarik behar ez duten berreskuratutako eremuak gutxika talde honetan barneratzen joango dira.

2.- BABES ZORROTZEKO EREMUAK (BZE)

Zona hauek, oro har, oso txikiak izaten dira. Balio handi edo berezia duten elementu natural eta kulturalak dauzkate; bereziak izan daitezke arraroak direlako, adierazgarriak edo estetika aldetik garrantzitsuak direlako, garrantzi kulturala dutelako edo flora eta fauna basatia zaintzeko eta haien ziklo biologikoa garatzeko egokiak direlako (batik bat babesteko, umeak hazteko, elikatze eta joan-etorrietarako lekuak). Zorrotz babestu eta inguruko jarduerak egoki kontrolatu behar dira.

Kategoria honetan sartzen dira turismoak ustiatu gabeko eta interes arkeologikoko leizeak (Ekain, Aie Zelai, Gurutzepe, Aitz-Ustun, Alabier II eta Urkitte Aitz); Ilarrako zelaietako elurtegia, kontserbazio egoera ona delako; mehatxatuta dagoen azeri-mahatsaren (*Paris quadrifolia*) kokalekua⁶; Lastur Arbiskotik gertu dagoen nartziso (*Narcissus pseudonarcissus* taldea) populazioa (behar denean handitu egingo da, Habitaten Zuzentarauko floraren kokalekuak aurkitzen badira). Kategoria honi dagokio, baita ere, Goltzibarko harrobitik gertu dagoen arte handia. Gainera, identifikatu eta aztertu ahala sartuko dira handiak, arraroak edo egitura berezikoak direlako interesgarritzat hartutako zuhaitzak, adibidez: ale motzak.

Kategoria honetan dago, baita ere, berreskuratzeko edo hobetzeko jarduerarik behar ez duten erreken sarea, hau da, Goltzibar erreken goiko partea eta iturburua. Erreka ertzetan 10 metro zabaleko zerrenda babestu egingo da; zerrenda hori zabaldu egingo da, erriberako landare naturalek lur gehiago hartu ahala.

Zorrotz Babesteko Zonen mapan habitatentzat eta flora eta fauna basatiarentzat interesgarriak diren balio natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario irekian jasotako elementu berriak sartuko dira, pixkanaka. Halaber, berreskuratu ondoren, Azketako putzua kategoria honetan sartuko da.

Zona	Balio natural eta kulturalak
Ekain, Urkitte Aitz, Aie Zelai, Gurutzepe, Aitz-Ustun, Alabier II eta Urkitte Aitz leize kontinentalak.	Fauna eta habitatak. Ondare arkeologikoa.
Azeri-mahatsaren (<i>Paris quadrifolia</i>) kokalekua.	Flora mehatxatua.
Nartzisoaren (<i>Narcissus pseudonarcissus</i>) kokalekua.	Flora mehatxatua.
Goltzibarko arte handia (<i>Quercus ilex</i> , <i>ilex</i> subespezia).	Elementu interesgarria.

3.- BERREZARTZE EKOLOGIKOKO EREMUAK (BEE)

Beren balio ekologikoen, habitat naturalek eta espezieek aldaketa edo narriadura nabarmena agertzen duten degradatutako eremuak dira. Eta beren funtzionaltasuna berreskuratu, baloreen biziraupena bermatu eta kontserbazio egoera hobetzeko ekintza ezberdinak proposatzen dira.

Lehengoratzeko Ekologikoko Zonak dira, adibidez, erriberako landareen ordez sail aloktonoak daukaten edo bertako landare zerrenda estu bat besterik ez daukaten ibaiertzak (Goltzibarko errekan Ezkapio iturritik beherako bazterrak eta Badiolegitxo erreken ertzak, esaterako). Lehengoratzeko Ekologikoko Zona da, baita ere, Zabaltxoko platano saila.

Kategoria honi dagozkio, halaber, erreka eta haltzadietako konektibitatea eta prozesu ekologikoen funtzionamendu eta garapen egokia eragozten dituzten hiru presa edo oztopoak dauden eta lehengoratzeko proposamenak dauzkaten erreka zatiak: Agite inguruan daude eta 8, 3,5 eta 4,5 metro garai dira, hurrenez hurren; azkeneko biak errota zaharrak dira eta batetik bestera 10 metro daude. Zona horiek oso txikiak eta kokaleku zehatzekoak dira⁷, baina xehetasun eskalekin besterik ezin dira kartografiatu; horregatik, zonifikazio mapan behar baino handiagoak dira, errazago ikusteko.

Baso sail pribatuei dagokienez, LEZ dira Goltzibar ibaiaren iturburuko (Salzakorta inguruko) sailak, lotura ekologiko gisa balio duten lursailak eta gaur egungo basoen ondoan daudenak. Kategoria honetakoak dira, orobat, Debako Olazabal behekoa baserri ondoan orain dela gutxi moztutako saila eta Izarraitzeko zelaietako (Ezkapioko) ur gezako urmaela. Urmaelaren naturalizazio egoera aurreratua denez eta flora eta fauna interesgarria daukanez, habitata hobetzeko eta ganaduaren eragina arautzeko jarduerak egin daitezke, adibidez: inguruan putzu berri bat egitea eta urmaelaren parte bat hesitzea (ikusi 31. neurria).

4.- APROBETXAMENDU ESTENTSIBOKO ZONAK (AEZ)

4.1.- Abeltzaintza aprobetxamendu estentsiboko zonak

Abeltzaintza estentsiborako erabiltzen diren eremu lauak dira. Eremu horiei eustea ezinbestekoa da habitat natural batzuen edo Izarraitzen BBE izendatzea eragin duten flora eta fauna espezieen kontserbazio egoera ona izatea eta osotasun ekologikoari eustea bermatzeko. Zona horietako bazkaleku fluxua iraunkorra da, eta horrek laguntzen du abeltzaintza estentsiboa gizarte eta ekonomia aldetik garatzen; gainera, paisaia oso erakargarria da.

Kategoria honi dagozkie sasiak (txilardiak), iralekuak eta bazkalekuak. Abeltzaintza aprobetxamendu estentsiboko zona horietan sartzen dira, baita ere, bazkatutako larreak, mozteko eskasak diren altitude txikiko zelaiak eta landazabaleko heskaiak.

4.2.- Baso aprobetxamendu estentsiboko zonak

Baso aprobetxamendu estentsiboko zonak dira haritz, pago eta artez osatutako baso autoktonoak eta hegaletako baso mistoak, Bilakaera Naturaleko Zonetan sartu gabeak: Badiolegitxoko eta Attolako puntako pagadi azidofilo atlantikoko orbanak, pagadi basofilo edo neutroak, *Quercus robur* nagusi duten baso azidofiloak (banaketa potentzialari jarraiki, Goltzibar errekaaren ezker aldean dago, Sastarrain errekaekin bat egiten duen lekutik gertu), amilburu karetsuko baso mistoak, Azkoitian eta Deban sakabanatutako bost artadi txikiak eta zuhaitz hostozabal gazteen baso naturalak.

Ustiapen guztiak oinarrizko habitat eta espezieak mantentzearen menpekoak izango dira. Hala, eremu horiek aprobetxatzeko, «basoak modu iraunkorrean gestionatzeko plana» egingo da, plan honetan ezarritakoari jarraiki; gestio plan hori EAEko Natura 2000 Sarean eskumena duen ingurumen administrazioak baimendu behar du. Baimena jasota ere, planetik eratorritako jarduera eta proiektuek biodibertsitatean izan ditzaketen eraginak ebaluatu egin behar dira, ingurumen aldetik eta organo kudeatzailearen baimena lortze aldera.

5.- BASO USTIAPEN INTENTSIBOKO EREMUAK (UIE)

Egurra ekoizteko baso sail pribatuak dauzkaten zonak dira. Ez daukate zerikusi zuzenik habitaten kontserbazioarekin eta, nahiz eta BBE barruan egon eta naturaltasuna murriztu, ez dute eremuaren osotasun ekologikoa eta kontserbaziorako garrantzitsuak diren habitat natural eta espezieak arriskuan jartzen.

Inbentariatutako bi fruta-arbola sailak kategoria honetakoak dira. Zona horiek, gehienez, 72 hektarea eduki behar dituzte edo oraingo zuhaitzien % 30 hartu behar dute.

Kanpoko espezie inbaditzaileen sailtan (Errillako puntako *Robinia pseudoacacia* sailean, adibidez) ezingo dira berriz ere mota berbereko espezieak landatu eta aurreko ale guztiak kendu beharko dira, mozteko garaia heltzen denean, teknika mekaniko edo kimiko eraginkorrekin (kasuen araberak).

6.- ERABILERA PUBLIKOKO EREMUAK (EPE)

Olgetarako, interpretaziorako eta ingurumen heziketarako erabilera publikoko ekipamenduak dauzkaten eta bisitariak hartzen dituzten espazioak dira, adibidez: Zorrotzpeko olgetarako eremua, aparkalekua barne, eta Xoxoteko mendi aterpea eta aterpearen ingurua.

Erabilera publikoa dute, baita ere, Zorrotzpeko aparkalekutik Erloko gailurrera doan bideak eta Xoxoteko aterpera heltzeko saihasbideak.

7.- HIRI EREMUAK ETA AZPIEGITURAK (HEA)

Hiri eremu eta azpiegituretan sartzen dira BBEan sakabanatutako baserriak, errepide sarea eta erabiltzeari utzitako Goltzibarko harrobia.

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURUA	EMAITZA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIA BALIOA
Zuhaiztien % 75, gutxienez, baso heldu eta zatitu gabeak izatea.	Baso autoktonoen azalerari gutxienez 35 hektarea gehitzea eta basoak hain zatituta ez egotea.	Basoen (pagadi eta hariztien) azalera handitzea	581 ha	616 ha
Zuhaiztien % 75, gutxienez, baso heldu eta zatitu gabeak izatea.	Basoen naturaltasuna hobetzea.	Naturaltasun indizea	Ezezaguna	Nahikoa hobetzea
Zuhaiztien % 75, gutxienez, baso heldu eta zatitu gabeak izatea.	Interes ekologikoko bereziko zuhaitzietan eta zuhaitz moten unadei eustea.	Interes ekologikoko zuhaitzen kopurua eta kokapena	Ezezaguna	BBEan eta LEZn interes ekologikoa duten zuhaitz unaden % 100
Bazkaleku eta sasien gaur egungo azalerari eta mota saiko egiturari eustea.	Adierazle kuantitatiboaren bitartez bazkalekuen, sasien eta mosaikoaren gaur egungo kontserbazio egoera eta aldeko baldintzak zertan diren jakitea.	Kontserbazio egoeraren adierazle kuantitatiboak	Ezezaguna	Nahikoa hobetzea
Bazkaleku eta sasien gaur egungo azalerari eta mota saiko egiturari eustea.	Sasi eta bazkalekuen gaur egungo azalerari eta mota 20 hektarea zelairi eusteko moduko abeltzaintza karga mantentzea.	Bazkalekuei, sasiei eta mozteko zelalari eusteko kontratuak dauzkaten abeltzain profesionalen %	0	% 50
BBEan bertako ibai-karramarroaren (<i>Austropotamobius pallipes</i>) populazio egonkor eta bideragarri bat finkatzea.	Goltzibar errekan bertako ibai-karramarroaren populazio egonkor bat finkatzea.	Bertako ibai-karramarroa	Ez dago	Populazio egonkorra

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

HELBURUA	EMAITZA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIA BALIOA
BBEan bertako ibai-karramarroaren (<i>Austropotamobius pallipes</i>) populazio egonkor eta bideragarri bat finkatzea.	Erriberako basoen 2,3 hektarea eta haei lotutako hezegunak berreskuratzea.	Erriberako basoen azalera	0 ha	2,3 ha
Mehatxatutako kiropteroen populazioei eustea, haien ehiza eremuetan esku hartuz eta udako eta hibernaltzeko babesleku gehiago jarritz.	BBEko kiroptero espezieen populazioen banaketa eta egoera zertan diren jakitea.	Ziklo biologikorako eremu garrantzitsuak	Ezezagunak	% 100 ZBZ izendatzea
Mehatxatutako kiropteroen populazioei eustea, haien ehiza eremuetan esku hartuz eta udako eta hibernaltzeko babesleku gehiago jarritz.	KBEko kiropteroen habitat egokia ziurtatzen da.	Habitataren kalitatea	Ebaluatu gabe	Nahikoa hobetzea
Mehatxatutako kiropteroen populazioei eustea, haien ehiza eremuetan esku hartuz eta udako eta hibernaltzeko babesleku gehiago jarritz.	Kiropteroek garrantzi handia dutela jakinaraztea.	Dibulgazio espezifikoko jarduera kopurua	0	3
Izarraitzen eta Arno, Pagoeta eta Ernio-Gatzumeren arteko korridoreak zehaztea, 1:5.000 eskalan.	Izarraitzen eta Arno, Pagoeta eta Ernio-Gatzumeren arteko korridoreak zehaztea, 1:5.000 eskalan.	Izarraitz, Arno, Pagoeta eta Ernio-Gatzumeren arteko korridore naturala	Ez dago	Izendatua
Izarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta biodibertsitatea galtzea	Kontserbazio egoera hobetzeko interesgarriak diren habitat guztien eta Izarraitzen	Habitaten kartografia	2010ean berrikusia	Eguneratua

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

HELBURUA	EMAITZA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIA BALIOA
edo kaltetzea eragin dezaketen arrazoiak ezagutzea, biodibertsitateari epe luzera eustea bermatzeko neurriak diseinatze aldera.	tzeko dibertsitate biologikorako eta osotasun ekologikorako garrantzitsuak diren leku edo elementu natural edo kultural guztien kartografia eguneratua edukitzea.	Geoerreferentziatutako inbentario irekia	Ez dago	Badago
Izarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta biodibertsitatea galtzea edo kaltetzea eragin dezaketen arrazoiak ezagutzea, biodibertsitateari epe luzera eustea bermatzeko neurriak diseinatze aldera.	Babes bereziko erregimeneko basa espezie eta desagertzeko arriskuan dauden habitatzuztien kontserbazio egoera ezagutzen da.	Kontserbazio egoera	% 32 ezezaguna	Babes bereziko erregimeneko habitatzuztien ezagutzea.
Izarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta biodibertsitatea galtzea edo kaltetzea eragin dezaketen arrazoiak ezagutzea, biodibertsitateari epe luzera eustea bermatzeko neurriak diseinatze aldera.	Izarraitzeko dibertsitate biologikoaren eta bertako ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondatsun eta zerbitzuen balio ekonomiko guztia zenbatestea.	Biodibertsitatearen balio ekonomiko guztia	Ezezaguna	Zenbatetsia
Izarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta biodibertsitatea galtzea edo kaltetzea eragin dezaketen arrazoiak ezagutzea, biodibertsitateari epe luzera eustea bermatzeko neurriak diseinatze aldera.	Fauna basatiaren hilkortasun ez naturaleko puntu beltzen mapa egitea, BBEan eta inguruan.	Puntu beltzen mapa	Ez dago	Eskura eta eguneratua

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

HELBURUA	EMAITZA	ADJERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIA BALIOA
Herritarrek Izarraitzeko BBEan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea eta BBEa zaintzen laguntzea sustatzea.	Herritarrei, aaldian-aldian, Izarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazioa ematea; baita kontrako egoerak eragiten dituzten arrazoiei, arrazoi horien inguruko politika publikoiei eta politika horien emaitzei buruzko informazioa ere.	Hiritarren ezagutza maila	Baxua	Altua
Organo kompetente guztien koordinazio instituzionala hobetu eta Ingurumen araudia eta zatikako araudia egokitu, dokumentu hone-tako helburu, neurri, jarraibide eta arauekin bat etor dadin.	Batzorde tekniko iraunkor bat sortzea, Eusko Jaurlaritza-ko Biodibertsitate Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Izarraitzeko jarduerak koordinatzeko.	Batzorde teknikoa	Ez dago	Indarrean
Erakunde publiko eskudunen arteko koordinazioa hobetzea eta dagoen ingurumen eta sektore araudia egokitzea, bat etor dadin plan honetako xede eta helburuekin eta helburu horiek lortzeko neurri, jarraibide eta arauekin.	Planaren aplikazioa errazteko ingurumen araudi eta zatikako araudi guztia egokitzen da.	Zatikako plan bateragarriak	Ebaluatu gabe	% 100